

Barrena



Eskutik, Debako Euskal Jaira

Bihar, larunbata, izango da Euskal Jaiko egun handia,
baina ospakizunak gaur hasiko dituzte,
Kalean Kantuz-ekoen kalez kaleko kantaldiarekin / 25

lazko herri bazkarian batu zirenetako batzuk, kalejiran. NEREA BEDIAUNETA ALKORTA

MENDIKO UREN KONTROLA

Mendiko urak kontrolatzeko sistemak arduratuta ditu baserritarrak

EHNEk dio baserritarrek eurek sortu dituztela baserrietara ura eramateko sistemak eta ez dela bidezkoa orain gastu gehiago ezartzea / 2-3



Joan zen astean baserritarrek Soraluzen egin zuten bilerako argazkia. U.M.Z.

OSASUNA

"Gipuzkoan 13.000-14.000 lagun ingururi eragiten die alzheimerrak"

Gurutz Linazasoro neurologoak esan du alzheimerra izateko arriskua %45eraino murriztu dezaketela gaur egun / 4-5



Gurutz Linazasoro. A. ANDONEGI

ANTZERKIA

Ermura itzuliko da gaur Imanol Arias aktorea, 'Mejor no decirlo' antzezlanarekin / 17



JAVIER NAVAL

MENDIKO LASTERKETAK

Julen Gastonek eta Anna Fernandezek irabazi dute polemika artean jokatu den Ermuko Hiru Txikiak Trail lasterketa / 18



GARAZI MENDIETA

MENDIKO LASTERKETAK

Lesio larritik bueltan, bigarren izan da Maite Maiora Eslovenian UTMB zirkuituko ultra batean / 15



EHNE sindikatuko koordinatzaile Naroa Irure, iturri baten ondoan. EHNE

"Gipuzkoan salbuespen egoera ezartzea da erronka"

NAROA IRURE EHNE SINDIKATUKO KOORDINATZAILEA

Mendiko urak kontrolatzeko sistemaren harira, hitzaldiak egiten ari da EHNE sindikatua

Ubane Madera Zangitu DEBABARRENA Azken hilabeteotan, EHNE sindikatua hitzaldiak egiten dabil herriz herri. Mendiko urak kontrolatzeko Eusko Jaurlaritzak ezarri nahi duen sistemaren harira ari da horretan. Europak mendiko urak neurtu nahi ditu legez; eta, lege hori betetzeko, Jaurlaritzak erabaki du Euskal

Autonomia Erkidegoan erabiltzen diren mendiko urei kontagailuak jarri behar zaizkiela, eta erabaki du hori ur horien erabiltzaileek egin behar dutela. Halaber, ari da jakinarazten ere, ur horren kontsumoarengatik kanona ordaindu behar dutela erabiltzaileek. EHNE sindikatuko Naroa Irure koordinatzaileak kontatu

duenez, sindikatutik aukera ikusten dute egoerari aurre egiteko, eta, horretarako, elkarrekin jarduteko bidea egiten ari dira.

Mendiko uren harira batzarrak egiten ari zarete. Zergatik?

Urte honen hasiera aldera, mendiko urekin lotutako eskutitz baten berri ematen zuten EH-

NEko afiliatuen deiak jasotzen hasi ginen. Hasieran, deiak oso puntualak ziren, baina gero eta maiztasun handiagoarekin hasi ziren deika. Sindikatuan hasi ginen gaiari buruz informazioa batzen, abokatuekin berba egiten, beste sindikatu batzuekin berba egiten, araudia irakurtzen... Eta konturatu ginen zerbait potoloa zela. Laburpena prestatu genuen eta bilerak deitzen hasi ginen Gipuzkoa mailan eskualdeka, jendearen aldartea ikusteko. Gure sorpresa izan zen ikustea bileretara jende mordo zeto-rrera eta jende oso arduratuta zegoela.

Konta egiguzu zer eskatzen ari diren gutunen bitartez.

Gutun horiek Uraren Agentzietatik ari dira iristen. Eusko Jaurlaritzaren agentzia bat da hori. Hainbat eskutitz mota daude, baina, oro har, landa-eremuko bizilagunei esaten zaiena da mendiko uren erabileraren titularitatea eguneratu egin behar dutela eta ur horien kontsumoa kontrolatzeko kontagailua jarri behar dutela; horrekin batera, jakinarazten zaie kontsumo horren metro kubikoko 3 zentimoko kanona ezarriko zaiela.

Noiztik ari dira baserritarrak eskutitzak jasotzen?

Lehenak 2022an hasi ziren iristen, baina oso gutxi, eta orain, 2025-2026an hasi dira maiztasun handiagoarekin iristen. Baserritar batzuek jaso dituzte, eta beste batzuek ez. Ur-hargunearen baimena batzuetan indibiduala da, eta beste batzuetan, kolektiboa; baina kasu kolektibo batzuetan, uren erabiltzaile batzuei iritsi zaie gutuna eta beste batzuei ez. Horrek berorrek presio estra eragiten die baserritarrei, gutuna jaso dutenek pentsatzen dutelako eurak daudela jomugan.

Orain arte, non egin dituzue bilerak?

Zaldibian, Azpeitian, Eskoriaztan, Sorluzen, Elgetan, Zumarragan, Urretxun eta Oiartzunen egin ditugu. Udaletxeetatik, elkarteetatik eta baserritarrak eurak hasi zitzaizkigun deika, eta ondoren etorri ziren bilerak. **Dagoen ardura bistakoa da, orduan.** Ardura handia dago. Konturatu gara denak daudela haserre egoerarekin, iruditzen zaielako egin nahi dutena injustizia handia dela eta baserritarren eta kaletarren arteko desoreka bat gehiago dela.

Europatik dator legea?

Europatik datorren legea da urak neurtu egin behar direla.

Eta lege hori betetzeko, Jaurlaritzak behar du jakin erabiltzaile bakoitzak zein ur-kantitate kontsumitzen duen. Hori nola egin Jaurlaritzak erabakitzen du, eta, kasu honetan, kontsumo horren zenbatekoa kontagailu bidez jaso nahi du Jaurlaritzak. Gero, kontsumo horren zenbatekoa daukatenean, erabiltzaile bakoitzari aplikatu nahi zaio kanon bat. Jaurlaritzatik diote kanona tributu propio bat dela, EAEraiko eginda dagoena, helburua ez dela dirua batzea, baizik eta hemengo tributu propioa dela.

Kontagailuaren sistema horrekiko kekuak ere ari zarete jasotzen.

Bai, hori da. Batetik, kontagailuak 600-800 euroko kostua dauka, hura norberak erosi eta instalatu behar du ur-hargunetik ahalik eta gertuen, eta gero, norberak egin behar ditu mantentze-lanak. Pentsa, kontagailua mendi-puntan jartzea tokatuz gero, sastrakak kendu behar dira hura jartzeko, eta gero, kontagailua ikustera joaten den bakoitzean ere bai. Bestalde, euri asko egiten badu zikindu egiten dira bideak, eta, kontagailua ezarrita dutenek jakinarazi dute batzuetan kontagailua kateatu egiten dela; eta ur gutxi badauka, berriz, ez daukala nahikoa presio eta gelditu edo blokeatu egiten dela kontagailua. Bestalde, kasu askotan, iturbururitik irtetzen den uraren zati bat bidean galtzen da, ez du baserritarrak kontsumitzen. Beraz, ez da sistema fidagarria, baserritarrari lan-karga eta kostu ekonomikoa dakarkio eta ez du balio errealitatea zein den ikusteko.

EHNEk ikusten du aukera egoerari aurre egiteko, ezta?

Bai. Lehenik, ikusi nahi genuen landa-eremuko bizilagunen al-

"Zerbait lortzeko itxaropena badugu, baina garrantzitsua da denok elkarrekin lan egitea"

"Ez da sistema fidagarria, eta baserritarrari lan-karga eta gastu ekonomikoa dakarzkio"

dartea zein den. Konturatu gara denak daudela haserre egoera-ekin, iruditzen zaielako egin nahi dutena injustizia handia dela eta baserritarren eta kale-tarren arteko desoreka bat gehiago dela. Beraz, ikusi dugu baserritarren aldetik badagoela indarra. Behin indar hori bada-goela ikusita, egoera aztertzen hasi ginen, eta konturatu ginen kontagailuaren sistema agindu baten bitartez ezarri nahi dutela, Eusko Jaurlaritzaren agindu bitartez. Beraz, Jaurlaritzaren agindu hori aldatu beharko litzateke, eta hori egitea Jaurlaritzaren eskumena da. Hortaz, nahi izanez gero, politikariek aldatu egin dezakete agindu hori. Europako lege bat aldatzea oso zaila da, ezinezkoa ia. Baina Jaurlaritzaren agindu bat aldatzea borondate politikoaren esku dago.

Zein da sindikatuaren helburua?

Koordinazio Taldea sortu genuen uztail bukaeran; ari gara talde hori sendotzen. Herri guztietako edo ia guztietako ordezkariak nahi ditugu taldean, indar handiagoa edukitzeko. Taldea ja nahiko sendo dago, herrietan ekintza paraleloak egin ahal izateko moduan. Lehenetsiko da informazioa ematea, komunikabideetan, ahoz aho... jendeak jakin dezala zer ari den pasatzen, eta jakin dezala ez dagoela bakarrik. Aldi berean, abokatuekin hitz egiten ere ari gara, jasotzen ari garen Uraren Agentziaren

eskutitz horiei guztiek erantzun bera emateko. Aldi berean, udal-etan ere ari gara lanean, ea zerbait egiterik badugun. Udalek ere presiona ditzakete alderdi politikoak edo Eusko Jaurlaritza. Orain, irail bukaeran edo urri hasieran Koordinazio Taldearen bigarren bilera egingo dugu, ikusteko zein puntutan gauden eta erabakitzeke hurrengo pausoak zeintzuk izango diren. Azken helburua da Eusko Jaurlaritzaren agindua aldaraztea eta kontagailuak eta kanona kentzea. Baina hau *trialloi* bat da eta pausoz pauso joan behar dugu.

Adibidez, Uraren Agentziak bere webgunean *Estimazio objektiboko sistema* izeneko dokumentu bat dauka. Dokumentu hori hitzezko konpromiso moduko bat da, hitzez sinatutako dokumentu bat, eta hori sinatzen duenak konpromisoa hartzen du urtean hainbeste litro ur baino gehiago ez erabiltzeko. Norbere hitzarekin sinatutako dokumentua da, eta hori erabiltzea baimenduta dauka Uraren Agentziak. Eusko Jaurlaritzaren aginduan esaten dute baimendu dezaketela dokumentu hori erabiltzea arrazoi edo argumentu solido batzuk baldin badaude; hortaz, pentsatzen ari gara hortik bideratu genezakeela gure eskaera. Jaurlaritzaren agindua bera ezin badugu aldatu, ba, akaso, eska dezakegu Gipuzkoan, hemengo orografiarengatik, al-dapengatik, zailtasunengatik...

salbuespena ezarri eta kontagailuak jarri barik eskatzea erabil dezatela *Estimazio objektiboko sistema*.

Baina hor kanonaren kontua airean geratuko litzateke...

Salbuespen egoera ezarrita, kanonetik ere salbuetsita egotea eskatuko genuke Gipuzkoan. Kanona, berez, ezin da kendu, beste esparru batzuetan aplikatu egiten delako; industrian, adibidez. Guk eskatuko genukeena da salbuetsita gelditzea. **Salbuetsita; izan ere, mendiko ur horiek baserritarrek eurek atera, bideratu eta zaindu izan dituzte mendeetan, ala?**

Bai; jatorrian ahaztu egiten zaie baserritar askok ura dugula gure guraso, aitona-amonek... iturburuak martxan jarri zituztelako; deposituak, tutuak, mantentzea... Dena norberak egin du bere poltsikotik ordainduta, bere lan-kargarekin. Gure lanari eta diruari esker dugu baserritarrok ura; eta orain datoz esatera kobratu eta kontrolatu egin behar gaituztela, nahiz eta sekula ez diguten lagundu.

Gipuzkoan kezka da nagusi; Araban, berriz, konformidade handiagoga dago; zergatik?

Sindikatu moduan Arabako UAGA sindikatuarekin lankidetza dugu. Kontatu digutenez, han kanonaren inguruan ibili ziren borrokan. Hori lehenesten du sindikatuak, ze Araban, batetik bat, zerealak lantzen dituzte, ur kantitate handiak behar di-

tuzte, eta askok kontagailuak ja jarrita dituzte, kontrol propioak ere behar dituztelako. Baina etsita ikusi ditugu. Eta Bizkaian uren kontua ez dago modu berean jarrita, baina hango errealitatea ez dugu guztiz ezagutzen, eta eurekin kontaktatzen ari gara, aztertze-fasean, eta horregatik erabaki dugu indarra, batik bat, Gipuzkoan jartzea.

Beste leku batzuetan zelan ari dira urak neurtzeko Europako agindua betetzeko bidea egiten?

Gu COAG nekazaritza-erakunde-ean gaude; eurek pasatutako informazioaren arabera, Asturiasen, Kantabrian eta Galizian-eta ez dabilta horrelako gauzarik eskatzen, Nafarroan ere ez... Printzipioz, ez dute Eusko Jaurlaritzaren interpretazio bera egin, orain arte dugun informazioaren arabera, behintzat.

Soraluzeko batzarrean azaleratu zen beste kezketako/nahietako bat izan zen ura izateko eskubidea oinarritzko eskubidea dela, eta hori, gaur egun, administrazioak ez duela bermatzen baserri askotan. Hori ere landuko duzue?

Bigarren fase batean landuko genuke. Adibidez, zenbateraino legeak behartzen dituen udalak ura landa-eremura eramatera. Gai politikoa ere bada. Herri batzuetan kontzientzia handiagoga dute eta eramaten dute ura; beste batzuetan, ez... Argi dagoena da arazo estruktural handi bat dagoela atzean, ur

edangarria ez delako iristen toki guztietara. Estruktura hori dena aldatzea, instalazioak jartzea... egundoko inbertsioa da. Dirutza pagatu beharko luke Gobernuak. Hori ere esaten diegu agintariei, gaur egun diru hori guztia aurrezten ari direla guri esker. Egokiena litzateke ur edangarria iristea toki guztietara eta inbertsio hori Gobernuak egitea, baina bada-kigu arazo handia dela, beti egon den arazo bat dela eta ez dutela konponbidea egun bate-tik bestera jarriko.

Bestetik nahi baduzu gaineratu...

Animatu nahiko genuke jendea gai honetan parte hartzera; guztion artean egin behar dugu indarra. Edozein arazo/zalantza izanez gero, berriz, lasai dei dezatela sindikatura. Ahoz aho-ko lan hori egin behar dugu, ikusarazteko ez gaudela bakarrik; guztiak gaude haserre eta gai honi ondo eusten badiogu eta guztion artean lana ondo egiten badugu, ziur zerbait aldatzeko aukera edukiko dugula, baina guztion arteko lana behar da, guztion indarra behar dugu. Ez dugu ezer baztertzen, mobilizazioak, sinadura bilke-ta...

Gai honi eutsi behar diogu buru-belarri, eta landa-eremuko bizilagun eta baserritar guztiak animatzen ditut parte hartzera. Zerbait lortzeko itxaropena badugu, baina garrantzitsua da denok elkarrekin lan egitea.

Soraluzen, mendiko uren erabiltzaileak elkartu eta modu kolektiboan ariko dira

Debabarrean ere, mendiko urak kontrolatzeko ezarri nahi duten sistema eta gaia bera kezka iturri da landa-eremuko bizilagunen artean. Horren erakusle, Soraluzen, udan, gaiari buruzko bi batzar egin dituzte, eta bietan 60tik gora baserritarrek parte hartu dute. Eta bilera bietan bistaratu du gaiak kezka, ezinegon eta ardura handia, eta haserre eragiten duela landa-eremuko bizilagunen artean.

Soraluzen egindako lehenengo bilera Soraluzeko Udalak antolatuta egin zuten. Bileran, Unai Larreategi alkateak esplikatu zuenez, baserritarren informazio eskaera eta ardura aintzat hartuta erabaki zuten bilera antolatzea, eta, Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan ere EHNE sindikatua gaia lantzen ari dela ikusita, haiek

gonbidatu zituzten Soraluzera. Bilera informatiboa izan zen hura. Soraluzeko baserritarrek ez ezik, landa-eremu inguruko hainbat bizilagunek ere parte hartu zuten. Sindikatuko ordezkariak egoeraren berri eman zuten, EHNE sindikatuaren asmoak partekatu zituzten eta, oro har, mendiko uren erabiltzaileen hainbat kezka jaso zituzten.

Bigarren bilera, berriz, joan den astean egin zuten, irailaren 16an. Bilera hura herriko baserritarrek eurek deitu zuten. 60 bat lagun elkartu zen Herriko Antzokian, herriko baserri auzo guztietako ordezkariak. Hainbat gai mahai-gaineratu ziren, eta bigarren bileran ere bistakoa izan zen mendiko uren erabiltzaileak ez daudela batere konforme egoerarekin.

Besteak beste, hiru puntu adostu zituzten, oinarria izanik egoerari aurre egiteko elkartu eta modu kolektiboan aritzea dela onena.

Hala, batetik, Soraluzeko egoera ezagutzeko eta partekatze galdetegi bana banatu zieten batzarrean izan zirenei, herriko baserriek duten egoera desberdina baita; baserri batzuk badute kontagailua jarrita, eta beste batzuk, ez; batzuei iritsi zaie kontagailuaren eta kanonaren berri ematen duen Uraren Agentziaren gutuna, eta beste batzuei, ez... Halaber, baserritarren kezak eta galderak ere jaso nahi dituzte galdetegi horren bitartez.

Bestetik, adostu zuten dituzten eskaerak modu kolektiboan bideratuko dituztela, herri mailan zein Gipuzkoa mailan.



U.M.Z.

Eta hirugarrenik, adostu zuten Soraluzeko ordezkariak batek parte hartuko duela Gipuzkoako EHNE sindikatuak antolatutako herri arteko batzarretan, eta gero, haietan esandakoa herrikideekin partekatuko dutela hurrengo pausoak erabakitzeke.

"Diagnostiko goiztiarra izatea berebizikoa da"

GURUTZ LINAZASORO CRISTOBAL
NEUROLOGOA

Mediku zumarragarriak urteak daramatza giza garunaren misterioak ikertzen

Nerea Bedialauneta Alkorta
ELGOIBAR

Irailaren 21ean –Alzheimerraren Nazioarteko Eguna–, Gurutz Linazasoro Cristobal neurologo eta ikertzaile ezagunak (Zumarraga, 1959) *Alzheimerra hitz argitan* solasaldia egin zuen Elgoibarren, Maite Solas ikerzaile elgoibartarrarekin batera.

Neurologiaren eta gaixotasun neurodegeneratiboen ikerkuntzan erreferente da Linazasoro; parkinsonaren eta alzheimerraren prebentzioan aitzindari den Gipuzkoako Poliklinikako Terapia Aurreratuen Programako burua da, eta gaiari buruzko liburuak eta dozenaka artikuluzientifiko argitaratu ditu. Hitzaldia aitzakia hartuta, gaur egungo egoeraz, diagnostiko goiztiarrak eta prebentzioak daukaten garrantziaz eta merkaturatu diren botika berriei mintzatu da, besteak beste.

Alzheimerra ardatz hartuta, *Alzheimerra hitz argitan* izenburuko solasaldia egin berri duzue Elgoibarren Maite Solas ikertzaileak eta biok. Zure ustez, zer garrantzi dute halako ekimenek herriarriak informatzeko eta sentibilizatzeko?

Nire ustez, halako hitzaldiak garrantzi informatibo handia dute eta ezinbestekoak dira herriar askorentzat. Batez ere, gaur egungo egoerari buruzko informazio argia izaten laguntzen diete, bai ikerketari dagokionez, bai gaitza duten pertsonen tratamenduari dagokionez ere. Beraz, halako ekimenak oso baliagarriak iruditzen zaizkit. Horrez gain, iruditzen zait ikerketan edo tratamenduan dihardun profesionalok badugula, nolabait, egiten ari garen hori guztia herriarrei helarazteko betebeharra ere; niri, behintzat, hala izan beharko lukeela iruditzen zait, komunikazioa oso

gauza garrantzitsua dela iruditzen zait eta.

Eta zeintzuk izaten dira bertaratzen diren herriarrien kezkarik ohikoenak?

Bitxia iruditu daitekeen arren, hitzaldietara, batez ere, emakumeak etortzen dira; nagusiki, gaitza duen senideren bat edo ingurukoren bat duten emakume kezkatuak. Batez ere, lau kontu argitzeko eskatu ohi digute.

Zeintzuk, zehazki?

Galdera nagusia alzheimerra nola hasten den eta nola diagnostikatzen den jakitea izaten da; batik bat, noiz hasi behar dugun kezkatzen eta medikurengana noiz jo erabakitzeke. Norbaitek jada senideren bat gaixorik badu, bigarren kezka izaten da gaitzak nola eboluzionatuko duen eta zer espero daitekeen. Hirugarrenik, une horretan eskuragarri dauden tratamenduak zein diren galdetzen dute. Azkenik, ikerketaren egoeraz ere galdetzen dute: ikerketa zein unetan dagoen eta zer aurrerapen egin diren azaltzen saiatzen naiz.

Alzheimerraz hitz egiten denean, eta zure esperientzia kontuan izanda, zein da herriarrek argi izan beharreko gauzarik garrantzitsuenak?

Diagnostiko goiztiarra izatea berebizikoa da: gaixotasuna zenbat eta lehenago antzeman, orduan eta tratamendu-aukera gehiago daude. Duela gutxi, gainera, gaitzaren bilakaera moteltzen duten eta epe luzerako pronostikoa zertxobait hobetzen duten tratamendu-aukerak agertu dira. Beraz, zenbat eta lehenago diagnostikatu, hobeto.

Bestalde, biztanleriaren zahartze progresiboa kontuan hartuta, zenbatekoa da gaitzaren intzidentzia gaur egun Gipuzkoan?

65 urtetik gorakoen %8ri eragiten diela esan ohi da. Datu horretatik abiatuta, eta kalkulu azkar bat eginda, Gipuzkoan 13.000 edo 14.000 pertsona ingururi eragiten diela esango nuke. **Urteak daramatzazu neurologiaren eta gaixotasun neurodegeneratiboen ikerkuntzan punta-puntan. Gipuzkoako Poliklinikako Terapia Aurreratuen Unitatean zer lerro ari zarete ikertzen gaur egun?**

Hemen, Gipuzkoako Poliklinikari, jada merkaturatuta dauden bi botika anti-amiloideo ematen hasi gara pazienteei: Lecanemab eta Donanemab. Gogorazi behar da sendagai horiek gaixotasunaren oso fase goiztiarretara bideratuta daudela; hau da, nagusiki gaitzaren bilakaera moteltzeko balio dute, eta zenbat eta lehenago eman, orduan eta onura gehiago izango ditu pazienteak. Bide beretik, bertan egiten ari garen saiakuntza klinikoak ere fase horretan dauden pertsonengana bideratuta daude. Arrazoi horregatik, esan genazake ikerketa eta saiakuntza kliniko guztien helburu nagusia diagnostiko goiztiarra lortzea dela, gerora tratamendu goiztiarra aplikatu ahal izateko.

"Gipuzkoan, alzheimerrak 65 urtetik gorakoen %8ari eragiten diela esan ohi da"

"Helburua gaixotasunaren garapena moteltzea da; abantailarik handiena hori da"



Gurutz Linazasoro Cristobal Elgoibarren izan zen astelehenean. AINHOA ANDONEGI

Zer nabarmendu zenezake medikazio berri horiei buruz eta zein da haien abantaila nagusia?

Botiken eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak, oraingoan, ez du onartu horiek ospitale publikoetan erabiltzea, baina bai, ordean, pribatuetan. Merkaturatu baino lehen, botika horien saiakera klinikoetan ere parte hartu genuen; beraz, oso ondo ezagutzen ditugu. Helburua gaixotasunaren garapena moteltzea da; hori da, dudarik gabe, abantailarik handiena. Saiakuntza klinikoek, behintzat, frogatu dute gaixotasunaren garapena %30-40 moteltzen dutela. Horrek guztiak, beraz, bizi-kalitate onarekin lauzpabost urte irabaztea ekar dezake, eta hori oso garrantzitsua da.

Nolanahi ere, botika berri horiek etorkizun itxaropentsua ireki dute, baina zein da gaur egun sendagai horien errealitatea?

Kontuan izan behar da pertsonaren bizi-kalitatea hobetzen dutela. Beharbada, pertsona ba-

ten diagnostikoa da duela oso gutxi, baina, haren bizi-kalitatea ona bada, garrantzitsua da botika horiek bizi-kalitate hori denboran mantendu dezaketela. Hala ere, kontuan izan behar da botika horiek beren arriskuak ere badituztela; irizpide oso zorrotzak bete behar dira. Horregatik, oso kontrol zorrotza egin behar izaten da. Besteak beste, ospitale batean administratu beharreko botikak dira, eta, izan ditzaketen ondorio kaltegarriengatik, kontroleko erresonantzia magnetikoak egin behar izaten zaizkie pazienteei; ezinbestekoa da jarraipen estua egitea. Beraz, baloratu egin behar da merezi duen ala ez.

Esperantzagarria da albistea, baina botika berri horiek, oraingoan, gaixotasuna oso goiz diagnostikatzeko den kasuetan baino ez dira eraginkorrak. Gaitza garatuago dutenentzako zerbait aztertzen edo ikertzen ari da?

Bai, noski. Adibidez, inflamazioetan eragiten duten medika-

mentu asko ikertzen ari dira, baita beste mekanismo batzuetan eragiten dutenak ere. Hain zuzen ere, medikamentu horietako zenbaiten saiakuntza klinikoetan parte hartzen ari gara. Nire iritziz, urte gutxi barru, gaur egun daukaguna baino egoera hobea izango dugu.

Azaldu diguzunaren arabera, alzheimerren ikerketan aurrerapen esanguratsuenak egin dira. Zer-nolako aldea dago gaur egungo tuinguruaren eta duela urte batzuk zegoenaren artean?

Duela 40 urte neurologian hasi nintzenean, memoria-arazoak zituen norbait kontsultara etortzen zenean, ia ez genuen tresnarik haren egoerari aurre egiteko; ez zegoen tratamendu eraginkorrik, ez antzeko ezer. Gaur egun, ordea, sintomak hobetzen laguntzen duten tratamenduak ditugu, baita gaixotasunaren progresioa moteldu dezaketen terapiak ere. Horrez gain, diagnostikoari urte asko aurreratzeko gaitasuna eta oso tratamendu eraginkorrak ditugu eskura. Beraz, esan daiteke gaur egun dugun panorama duela bizpahiru hamarkadakoa baino askoz hobea dela.

Oro har, ikerketa zein momentutan dago gaur egun?

Egia esan, alzheimerren ikerketarako une oso garrantzitsuan gaude. Izan ere, gaixotasunarekin lotutako aldaketak garunean sintomak agertu baino urte asko lehenago hasten dira. Horrek esan nahi du gero eta aukera gehiago ditugula gaixotasuna fase goiztiarretan identifikatzeko eta esku hartzeko. Arestian aipatutako aurrerapenak –diagnostiko goiztiarra eta gaixotasunaren bilakaera moteltzen duten botikak– azken urteotako ikerketaren emaitza dira. Gainera, etorkizunean tratamendu horien bertsio hobek eta aurreratua goak ateratzen joatea eta administratzeko modu berriak garatzen jarraitzea espero da. Esaterako, zenbait botika zainetik administratu ordez, larrazalpetik administratzeko aukerak ere ikertzen ari dira. Aldaketa asko espero dira. Alde horretatik, botika horietako batzuen saiakuntza klinikoetan parte hartzen ari gara; hau da, sendagaiak farmazietara iritsi aurretik egiten diren ikerketetan parte hartzen ari gara.

Gaixotasunak, oraingoz, ez du sendabiderik, baina tratamenduak badaude. Alzheimerren kasuan, gainera, diagnostiko goiztiarrak bizi-kalitatean eragin handia duela jakina da. Zein teknika daude gaur egun gaixotasun hasierako faseetan detektatzeko? Eta zer-nolako fidagarritasuna dute proba horiek?

Arlo horretan ere asko aldatu da egoera azken urteotan. Lehen, esaterako, bizkarrezurreko ziztada edo puntzioa egin behar izaten zen: bizkarrezurretik li-

kidoa atera, eta ondoren, analizatu. Beste aukera bat PET proba egitea zen, baina oso proba garestia da eta ez dago leku guztietan eskuragarri. Gaur egun, ordea, askoz modu sinpleagoan lor dezakegu informazio hori, odol-analisi baten bidez. Besteak beste, garunean amiloidearen presentzia aztertzei aukera ematen du, eta horrek garunaren egoerari buruzko informazio baliotsua eskaintzen du. Azken batean, tresna horiek asko laguntzen digute alzheimerren diagnostikoa lehenago egiten.

Terapia farmakologikoak aipatu ditugu, baina zer-nolako garrantzia dute tratamendu ez-farmakologikoek eta bizi-ohiturek gaixotasunaren progresioa moteltzeko orduan?

Oso garrantzitsuak dira estimulazio kognitiboko terapia guztiak, eta, noski, bizitza aktiboa izatea, bai intelektualki eta bai sozialki. Alzheimerre izateko arriskua murrizteko eta gaixotasunaren agerpena prebenitzen laguntzeko, badira gure esku dauden hainbat neurri. Bizimodu osasuntsua izatea funtsezkoa da: ez erretzea eta alkoholaren kontsumoa saihestea, behar bezala lo egitea, eli-

kadura orekatua izatea, jardue- ra intelektuala mantentzea eta aisialdirako zein harreman sozialetarako tartea izatea. Horri guztiari tentsioa, diabetesa eta kolesterol-mailak, entzume- na eta ikusmena behar bezala kontrolatzea gehitzen badizkio- gu, alzheimerre izateko arriskua %45eraino murriztu dezakegu. Beraz, gure esku dagoena ez da gutxi. Hala ere, badira kontrolatu ezin ditugun beste faktore batzuk ere, hala nola genetika eta zahartzea bera; baina, gaur egun, ezin dugu horien gainean eragin.

Eta, bukatzeko, zer beste aurrerakuntza edo berri espero dira etorkizun hurbilean alzheimerren aurkako borrokan?

Epe laburrean, Tau izeneko proteinaren eginkizuna hobeto ezagutzea espero dugu. Dagoneko horren gainean eragiten duten lehen terapiak agertzen hasi dira, eta ikerketa-ildo hori oso garrantzitsua da; arestian aipatutako amiloidearen pareko garrantzia izan dezake. Zorionez, proteina horri buruzko saiakuntza kliniko batean parte hartze- ko aukera izango dugu, eta emaitzak ikusiko ditugu.

"Oso garrantzitsuak dira estimulazio kognitiboko terapia guztiak, eta noski, bizitza aktiboa izatea"

"Alzheimerre izateko arriskua %45eraino murriztu dezakegu; beraz, gure esku dagoena ez da gutxi"

Barrena¹
BATZEN GAITUENA

barrena.eus/egin-kide

zozketak,
abantailak,
deskontuak,
eduki bereziak...

**egin zaitez
Barrenakide!**

NIRE USTEZ

Ur handietan

IRUNE BASAGOITI
BERTSOLARIA

Honako hau dugu gure lehenengo zita. Hasierako hitz hauetan, errazena sinpletik hastea litzatekeela pentsa dezake edonork. Idatz nezakeen lehen aldiez: lehen pausoez, lehen klase egunaz, gudan eragiten duten zirraraz, sortzen duten bertigoaz, atzera begiratzean sentitzen den malenkoniak... baina azken astean gure herrian mendiko lasterketa ospetsu baten harira gertatu diren hainbat kontuk barrena nahastu digute guztiz, eta ezin sentitu dugunari lekurik ukatu.

Lasterketako ohiko parte hartzailea izan den emakume batek sareetan salatu du lan egin zuen enpresan tratu txarrak jasan zituela eta antolatzaileek, jakinaren gainean egonik, enpresa hau onartu zutela lasterketaren babesletzat. Ezustean harrapatu gintuen berriak, baina ez zitzaigun hain harrigarria egin. Horrelakoen aurrean, munduarentzat beti da errazagoa bati aurre egin baino besteari lepoa ematea.

"Munduarentzat beti da errazagoa bati aurre egin baino besteari lepoa ematea"

Beti da errazagoa behar denean busti baino *horiek besteen kontuak dira*-ka jardutea; barkamena eskatu baino gehiago, kosta ahala kosta nork bereari gogor eustea. Erratzeko eskubidea unibertsa da berez. Hala ere, ezin ahaztu dezakegu erabaki bakoitzaren olatuak atzetik uzten duen uberan nork egiten duen lasai igeri, eta nor geratzen den itotzear, aterako duen beso bat aurkitu nahi eta ezinda. Sortzen diren konplizitate-sareetan nork josten dituen neurriak hariak, bihur daitezen batzuentzat euskarri baina besteentzat amarru. Erabaki-bide errazago hori eskura daukanak soilik har dezake. Besteoi tokatzen zaigu korrontearen aurka igeri egitea, uretan doazen kideei eskua ematea eta sareak korapilo are estuagoz jostea, denontzat bizigarri izan daitezen.

Pasako dira egunak, jaitsiko da marea eta bueltatuko zaizkigu barrenak lekura, baina har dezagun tarte bat bakoitzarengan utzitako oihartzunei erreparatzeko, ur horrek higadurak non sortu dituen aztertzeke. Akaso, ur handiak ez dira lehenengo aldi baterako hain kokaleku bortitza, bigarrenarako utzi beharko lehen aldietatik kontatzeko ditudanak.

GUTUNAK

Orain ordaintzen dugu bihar igotzen digutena

DUINTASUNA
ELGOIBAR

Datorren ostegunean, urriaren 1ean, Adinekoen Nazioarteko Egunean, Duintasuna kalera aterako da Elgoibarren. 12:00etan, Kalegoen plazatik. Ez gara mesede bat eskatzera aterako. Akordio bat gogoraraztera aterako gara. Gaur Elgoibarren pentsiodunak garenok herri honi makina-erremintaren hiriburu izatearen ospea eman zioten tailer eta galdategietan lan egin genuen. Hamarkadetan kotizatu genuen, gure seme-alabak hazi genituen, gure gurasoak zaindu genituen, eta askok bilobak zaintzen jarraitzen dugu. Gure pentsioa ez da limosna, ezta gastua ere: atzo irabazi genuen eta gaur kobratzen dugun soldata da.

2017an, Eusko Jaurlaritzako sailburu batek irratian azaldu zuen hilean 600 euroekin duintasunez bizi zitekeela. Orduan 7.000 euro baino gehiago kobratzen zituen. Erabakitzen duenak erabakiaren ondorioak jasaten dituenarengandik oso urrun bizi denean, besteen duintasuna bulego batetik kalkulatutako zifra abstraktu bihurtzen da. Agian, eusten ez duena ez da pentsio-sistema, distantzia hori baizik.

Begirada horrek gauza asko azaltzen ditu. Azaltzen du urteetan pentsioak %0,25 igo

izana, bizitza garestitzen zen bitartean. Eta ia inork kontatzen ez duen zerbait ere azaltzen du: orduan galdu zena ez zen inoiz itzuli.

Pentsiodunok ez dugu beste inork baino gehiago eskatzen. Bigarren mailako herritarrek bezala ez tratatzea eskatzen dugu.

Honek berarekin zerikusirik ez duela pentsatzen duenari galdera bat proposatzen diogu: nolakoa izatea nahi duzu zure zahartzaroa? Eta zure amarena, zure aitarena? Urriaren 1ean defendatzen duguna ez da gurea bakarrik: denoi tokatzen zaigunean izan nahi dugun herria da. Gaur pentsiorik izango ote duten zalantzan dauden gazteek inork baino gehiago egon beharko lukete manifestazio honetan: orain defendatzen ez duguna ez da existituko haien txanda iristen denean.

Ostegun honetan, urriaren 1ean, 12:00etan, Kalegoen plazan. Gure pentsioengatik. Atzetik datozenengatik. Denok merezi dugun zahartzaroagatik.

Udaletxea, beste batzoki bat ote?

EH BILDU
ELGOIBAR

PNVren patrimonializazio joerak ez du mugarik. Izan ere, igaro den asteburuan, Zirardamendin 1936ko gerran hil zituzten gudarien omenezko ekitaldia egin zen, 2013tik Elgoibarko Udalak urtero antolatuta.

Aurten ere EH Bilduk eskaera zehatza egin du

elkarrekin antolatzeke, Udalean garen hiru alderdien artean eta Zirardamendiko memoria berreskuratzen lan egin duen Elgoibar1936 elkartearekin.

Ekitaldi anitza proposatu genuen, instituzionala, politikoki orekatua eta herritarra, aurreko beste urteetan ez bezalaxe, non PNVko Euzkadi Buru Batzarrekoek monopolizatu izan duten eguna.

Baina ez dute nahi. Lauzpabost egun falta zirela, nork hitz egingo zuen, zer egingo zen, antolatu gabe zegoela esan ziguten, eta guk proposamena egiteko. Alferrik. Inori entzun ez eta PNVk nahi zuena egin du: alderdi ekitaldia egin du alderdiko buruak gidatuta. *Aitor Esteban Euzkadi Buru Batzarreko presidenteak eta Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak gidatu zuten ibilbidea*, zioen astelehenean *Barrena.eus*-en kronikak. Estebanen hitzak gehituz: "Gudari haiek bezala, babes-horma bat gara (...) totalitarismoaren kontra".

Zein da EBBko burua Elgoibarko Udalaren ekitaldi instituzional bat gidatzeko? Zer dio horrek totalitarismoaren aurka, Udaleko bigarren indarra eta memoria berreskuratzen lan eskerge egin duen herriko elkarte nahita urtero baztertu dutenean? Zirardamendin faxismoa borrokatu zutenak anarkistak eta kolore guztietako abertzaleak ziren. PNVk uste du denak bereak zirela, memoria berea dela, Udala berea dela. Hurrengo udal

Barrena[®]
DEBABARRENEKO
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera,
Ainhoa Andonegi, Ander Gomez
Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi,
Ander Gomez, Asier Orbea,
Egoitz Unamuno,
Garazi Mendieta, Izaro
Aulestiarte,
Nerea Bedialauneta,
Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Maketazioa
Zalao Arnaiz,
Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 37 04
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZKO EGOITZA
Sorluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetan kolaboratzaileek emandako iritzien gaineko erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako
UdalaElgoibarko
UdalaErmuko
UdalaMallabiko
UdalaMendaroko
UdalaMutrikuko
UdalaSoraluzeko
Udala

Babestutako hedabidea

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

hauteskundeetan erremedioa ipiniko diogun arte, ordea.

Galtzontziloak lurpean

A.I.
ELGOIBAR

Suitzan egin duten ikerketa baten berri eman nahi dizuet. 1.000 herritarri galtzontzilloak banatu dizkiete, eta lurperatzeko eskatu. Denbora batera atera eta lur laginarekin bidali behar zieten zientzialariei, lur bakoitzeko mikroorganismo eta makroorganismo kopurua ezagutzeko. Herrialde osoko lorategi, soro eta belardietako lurren aberastasun biologikoa ezagutzeko aukera eman du ikerketa honek.

Bitxia baina eraginkorra izan da zientzialariak egindako deialdi hau. Lurraren bizitasun mailaz jabetzeko, kotoi zatiak banatzea pentsatu zuten, baina galtzerdiak ere, baina, deialdiak arrakasta izan zezan, galtzontzilloak banatzea pentsatu zuten. Baita asmatu ere! Iragarri orduko, Suitzako nekazari eta lorezainek izena eman zuten eta azkar asko bereganatu zituzten galtzontziloak.

Ikerketa honetan, galtzontziloen hondatzeak erakutsiko zuen zenbaterainoko mikroorganismo eta makroorganismo kopurua bizi den lur horretan. Egitasmo honi esker, Suitzako eremu ugaritako lurren ezagutza sakondu da. Herritarrak zientzialarien tokian ere jarri dira, bere lurraren analisiak ezagutzuz

eta haren langintzan jasangarritasuna txertatzeko aholkuak jasoz, lurzorua kontserbazioaren alde egiteko bidea erraztuz.

Eta Euskal Herrian kuleroekin egiten badugu?

Autobus zerbitzu duina

J.M.F.
ELGOIBAR

Azkenaldian, sarri joan behar izaten dut Donostiara, eta gaur, asteartea, autobus geltokira abiatu naiz, beti bezala, garaiz. Autobusa 09:20an izaten da, baina, jende asko egoten denez, beti joaten naiz 15 bat minutu aurretik, ilara egitera. Gaur, ordea, ez da nahikoa izan. Aurreko autobusean sartu ezinda geratu direnak ere zain zeuden, eta Eibartik ia beteta iritsi da autobusa. Bi lagun sartu dira, eta hogeit geratu gara kanpoan.

Autoz ezin da Donostiara joan, aparkatzeko sekulako zailtasunak daudelako, eta orain, gainera, ke emisioen kontuarekin erdigunera sartzera debekatuta dute askok. Egoera horren ondorioz, herritar askok erabiltzen dute autobusa unibertsitatara, lanera edota medikuarengana joateko. Gaur, esaterako, medikuarengana joan behar zuten batzuk geratu dira autobus geltokian.

Trena ere badaukagu Donostiara joateko, baina autobusaren ordu berean da, eta ez dago marjinarik estaziora garaiz iristeko.

Ez da gaurko arazoa; aspalditik datorren kontua da,

eta, errefortzuak jartzen dituzten arren, begi bistakoa da ez dela nahikoa. Aspertuta gaude egoera honekin. 30 bat urte dira zerbitzu hau Lurraldebusek hartu zuenetik, eta egoerak berdin jarraitzen du. Garraio publikoa erabiltzeko dei egiten dute agintariei, baina ez dute zerbitzu duina ematen. Zergak ordaintzeko bakarrik nahi gaituzte?

Udaletxera eta Foru Aldundira askotan deitu dugu, eta beti erantzun berbera ematen digute: zerbitzua hobetzeko lanean ari direla. Baina hobekuntza hori ez da iristen. Nekatuta gaude egoera honekin.

Garraio publikoa bai, baina duina.

Lehengo lepotik burua

ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEA
BASAURI

Tamalez, lehengo lepotik burua: Espainiako Estatuko Aldizkari Ofizialean (gaztelaniazko siglekin, BOE) legeak ez dira euskaraz argitaratzen. Aldiz, katalanez argitaratzen dira Diputatuen Kongresuak behin betiko onartutako legeak ez ezik, baina bestelako arau garrantzitsuak ere. Espainiako Diputatuen Kongresuaren Erregelamenduaren 2023ko iraileko aldaketan honako hau jaso zen: Kongresuaren Mahaiak beharrezko neurriak hartuko ditu euskaraz argitaratzeko ganbera horrek behin betiko onartzen dituen lege-ekimenak. Horretarako, Diputatuen Kongresuak eta

Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu zuten 2024ko abenduaren 3an.

Hedabideetan agertu zen, eta aurrerapen garrantzitsutzat jo, arrazoi guztiz. Hala eta guztiz ere, Espainiako Gorte Nagusien Aldizkari Ofizialak eta BOEk segitzen dute legeak euskaraz argitaratu gabe.

Euskararentzat aukera bikain hori gal ez dadin, eskaerak bidali ditugu Espainiako Diputatuen Kongresura eta Euskaltzaindira, baita parlamentu-taldeen bozeramaileei idatzi ere. Erantzun on batzuk jaso baditugu ere, egoera ez da aldatu. Espainiako Herriaren Defendatzaileak ez du gure kexa onartu ere egin; argudiatu du Kongresua ez dela bere jardunean sartzen.

2025ean, Euskaltzaindiak erantzun zigun testuak jasotzeko sistema eta itzulpenak bideratzeko prozesua zehazten ari zela, baina ordutik hona denak berdin jarraitzen du.

Emaizta begi bistan daukagu: eragiten diguten lege horiek gaztelaniaz irakurtzen jarraitu behar dugu euskaldunok. Hala ere, oraindik aukera dago egoera zuzentzeko eta onartu zena betetzeko, alegia, Kongresuak behin betiko onartutako legeak euskarara itzultzeko eta argitaratzeko.

Baliteke Euskaltzaindiak baliabide nahikorik ez izatea horretarako, ez baita lan makala horrelako testuak itzultzea. Edonola, Euskaltzaindiak ezin badu, Eusko Jaurilaritzak eta Nafarroako Gobernuak hartu beharko dute ardura hori.


Kontuak kontu, euskara ezin da beste behin bazterrean geratu, eta gure agintariei gaiari heldu behar diote. Bide batez, bada garaia Eusko Legebiltzarrak eta Nafarroako Parlamentuak onartzen dituzten legeak euskaraz ere argitaratzen hasteko BOEn, zentzugabea baita euskarazko testua idatzita dagoenean argitaratu gabe geratzea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / barrena@barrena.eus

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

BERTSOAK
ETA
GASOLINA



"Nire bi pasio batu ditut liburu honetan: natura eta argazkilaritza"

VICENTE GUINEA ARGAZKILARIA

'Euskal Herriko zuhaitz monumentalak' izeneko liburua argitaratu du Vicente Guineak, eta bertan jaso ditu izendapen bereziren bat duten zuhaitzak

Ainhoa Andonegi

Betidanik gustatu izan zaizkio natura eta argazkilaritza Vicente Guineari, eta liburu horretan biak uztartu ditu. Monumentu natural izendatuta dauden zuhaitzak eta beste pare bat gehiago jaso ditu. Hain zuzen ere, liburu horri esker, Euskal Herrian zehar bidaiatzeko aukera ere izan du.

Noiz eta nola bururatu zitzaizun liburu hori sortzea?

Orain dela hamalau urte hasi nintzen liburuko zuhaitzei argazkiak ateratzen. Denak zuhaitz bereziak dira, eta horrela jasota dituzte aldundiek ere. 64 daude guztira, eta gehienak Nafarroan daude, baina nik ez ditut denak jaso. Bizkaiko zazpi daude; Gipuzkoakoak eta Arabakoak, hamabina; eta Nafarroakoak, 34. Horiez gain, beste hiru bat ere sartu ditut, katalogatuta egon gabe ere atentzioa eman didate-lako. Hasieran ez neukan buruan liburua kaleratzerik, baina material asko neukan, eta ingurukoek animatu ninduten. Hainbat argitaletxerekin jarri nintzen harremanetan, eta askok erantzun ere ez zidaten egin. Betak baietza eman zidan, arduradunari ere

gustatzen zaizkiolako horrelako gaiak. Zortea eduki nuen. Oso ondo saltzen ari da liburua. Argazkiez gain, zuhaitz bakoitzaren informazioa ere jaso dut, eta eskoletan eta liburutegietan jende askok erabiltzen duela esan didate. Nahi duenak Morkaikoren erosi dezake; bazkideek, %10eko deskontuarekin.

Liburu horri esker bidaiatzeko aukera ere izan duzu, beraz.

Bai, bai. Ordu pila bat eskaini dizkiot. Zuhaitz batzuk behin baino gehiagotan erretratatu ditut, gainera, urteko hainbat garaitan, hain zuzen ere, eta liburuan ikusten dira desberdintasunak. Batzuetan, joaten nintzen eta ez zegoen nik nahi nuen argitasunik; beraz, berriro joaten nintzen, beste ordu batean. Zuhaitzen eboluzioa ere ikusi dut denbora tarte horretan. Niretzako hau ez da lana izan, gozamen

"Orain dela hamalau urte hasi nintzen liburuko zuhaitzei argazkiak ateratzen"

baizik. Nire bi pasioak uztartu ditut proiektu horri esker, natura eta argazkilaritza.

Noiz hasi zinen argazkilaritzan?

Argazkilaritzarako zaletasuna ere aspalditik daukat. Nire kabuz ikasi dut guztia. Jesus Mari Sarasuarekin egin nuen ikastaro bat, 1980. urte inguruan, eta orduan harrapatu ninduen argazkilaritzak. Analogikoarekin hasi ginen, argazkiak errebelatzen genituen eta izugarri gustatu zitzaidan. Gaur egun, digitaletan nabil. Argazkiak ateratzen denbora asko pasatzen dut, ez da erraza nahi dudana emaitza lortzea. Jubilatuta ondoren, denbora gehiago eskaintzen hasi nintzen argazkilaritzari, eta, mendian ibiltzea asko gustatzen zaidanez, zuhaitzei argazkiak ateratzen hasi nintzen. Hiru bilduma ditut osatuta: orain dela 25 urte, beste zuhaitzetan aurkitzen nituen animalien formak jaso nituen bilduma batean, eta argazki erakusketa batzuk ere egin nituen argazki haiekin. Jaizkibelgo geoformak ere bilduta ditut, eta zuhaitzena izan da, momentuz, egin dudana azkena. Dena dela, nik jarraituko dut argazkiak ateratzen.



Vicente Guinea, liburuarekin. ASIER ORBEA



Mendazako hiru hankako artea (Nafarroa). V. GUINEA



LANDA KUADERNO TAILERRA, AIRE LIBREAN

- 10:00etan Skate parkean, 13:00ak arte.
 - **Gidaria:** Paula Heras (Egur arte tailerra).
 - 12 urtetik beherakoak heldu batekin joan beharko dira.
 - **Oharra:** hamaiketako eta ura eramatea gomendatzen da.
- *Euria eginez gero, beste aukera bat baloratuko da.

IZEN-EMATEA:

<https://forms.gle/9C9TaT6ku92lpdqR6>





Zirardamendin ateratako argazkia. UDALA



Haritz dantza taldekoen emanaldia. UDALA

Zirardamendiko frontean hil zituzten gudariak izan dituzte gogoan

90 urte bete dira Zirardamendiko frontean hamalau gudari hil zituztenetik

Ainhoa Andonegi

1936ko irailaren 25ean, Arana Goiri batailoiko hamalau gudari hil zituzten Zirardamendiko frontean, Mola jeneralaren tropen kontrako liskarretan, eta, haien

omenez, 2013an hasi ziren omenaldi-ekitaldi hori egiten, "euskal soldadu gazte haien sakrifizioa ohoratzeko eta memoria historikoa gordetzeko, bizikidetzarako eta adiskidetzeko bide gisa". Ha-

rrezkero, iraileko azken aurreko domekan egiten dute aitortza-ekitaldia. Hain zuzen, joan den igandean egin zuten, eta ohi baino berezixeagoa izan zen, 90 urte bete dira-eta gertakari hartatik.

Aiastiako pilotalekuaren atzean landatuta dagoen Gernikako arbolaren kimu paretik abiatu zuten ekitaldia. Lore-eskaintza egin zuten, eta Haritz dantza taldekoek dantza saioa egin zuten. Gero,

Zirardamendiraino joan ziren han bildutakoak. Aitor Esteban Euzkadi Buru Batzarreko presidentek eta Maialen Gurrutxaga Elgoibarko alkateak gidatu zuten ibilaldia.

Maialen Gurrutxaga izango da EAJren alkategaia udal hauteskundeetarako

A.A.

Maialen Gurrutxaga Uranga (Elgoibar, 1992) izango da berriro ere EAJren alkategaia 2027ko udal hauteskundeetan. EAJk adierazi duenez, jeltzaleek aho batez babestu dute egungo alkatearen hautagaitza, eta, bereziki, Gurrutxagaren hiru ezaugarri nabarmendu dituzte: "Irizpidea, esperientzia eta lanerako gaitasuna. Irizpidea, herritarrak entzun, lehentasunak identifikatu eta erabakiak

arduraz hartzeko; anbizioa, eguneroko kudeaketatik harago begiratu eta Elgoibarren etorkizuna prestatzen duten proiektuak bultzatzeko; eta gaitasuna, ideia horiek proiektu bihurtzeko, taldeak gidatzeko eta erakundeen, enpresen, elkarten zein herritarren artean akordioak eraikitzeko". Gurrutxagak "bihotzez" eskertu du alderdikideek berriro berarengan jarritako konfiantza. Era berean, nabarmendu du berrespen hori

ez duela egindakoaren aitortza gisa bakarrik hartzen, baizik eta etorkizunari begiratzeko "agindu" gisa ere.

Hasitako proiektuei segida

Elgoibarko EAJren iritziz, hurrengo urteetako erronka nagusietako bat hasita dituzten eraldaketa-proiektuak amaitzea izango da, eta zehaztu dute hurrengo etapa proiektu horien gainean eraikitzea izango dela.



Gurrutxaga, udaletxe aurrean. EAJ



Fundazioa
ALAIN AFFLELOU

UMEEN BEGI OSASUNERAKO XXVII. KANPAINA,
ABUZTUAREN 31TIK URRIAREN 18RA.

**NOIZTIK EZ DUZU ZURE
TXIKIAREN IKUSMENA AZTERTU?**

BETAURREKOAK OPARI.
5-7 URTE ARTEKOENTZAT.



ALAIN AFFLELOU
Óptica y Audiólogo

**SAN BARTOLOME
KALEA, 10
ELGOIBAR**

943 74 37 34

Eskatu txanda
afflelou.es



*2026-08-31tik 2026-10-18ra arte bali du, Espainiako eta Andorako Alain Afflelou optikaren. Kontuak baliabideak afflelou.es/ fundazioa. 1/25 enregistrazioa baliabide.

NIRE USTEZ

Auzolotsaz



ENEKO ETXANIZ
IKASLEA

Asteon izan ditu azken egunak aurtengo udak. Gure etxean, Euskal Herrian bi urtaro baino ez daudela entzun izan diogu sarri aitari: uda eta negua. Eta neguak ez du barkatzen. Irailaren hondarrean izan ohi diren jaiak oraindik ere uda giroan ospatu nahi izaten ditugun arren, sanmigeletan Aiastiako pilotalekuaren hotza izaten dugu zain neguaren iritsieraz jabetzeko.

Aurretik dantzan egiten dugu Haritzeko kideok, frontoira epeltasun apur bat eramateko saiakeran. Lortu ez dugu beti lortzen, baina auzotarrek esker onez aurten

arte afaltzera gonbidatu izan gaituztenez, merezi izaten du saiakerak.

Azken asteetan taldekideok han eta hemen kontzertutxo batzuk emateko aukera izan dugun honetan, orain arte ez bezala eman diot balioa gurean kulturgileei jatordua eskaintzeko dagoen ohiturari.

Etengabe *mainstream*-a den horri begira jartzen gaituen kultur jardueren kontsumo eredu horren hauspotzeak erabakiak eta aurrera egiteko aterabideak zailtzea besterik ez dakar zirkuitu txikiko antolatzaileentzat. Eta oztopo horiek pairatzen dihardugularik ere, iruditzen zait gurean zirkuitu txikiak, oro har, asko zaintzen duela kulturgilearekiko tratua.

Dena den, gizartean nagusi diren joerei jarraiki, kulturgintzan dihardugunon

konpromiso politikoak edo kausaren alde aritzeko prestutasunak galera nabarmena izan du, eta uste dut kultur arloko jardueren balio edo kostuarekiko kontzientzia ere behar baino ahulagoa dela oraindik.

Ordu erdiko dantza emanaldi xume bat besterik ez da izango bihar dantzariok Aiastian egingo duguna, aparteko sofistikazio eta parafernaliarik gabea; gastuak gastu, auzoko jaien bizigarri izan dadin nahi genukeena. Afariak ohi baino zapore gaziagoa izango du, orde, aurten hori ere gastuen artera batu zaigula jakinda. Lehen aldiz neguarekin batera lehortea iragarritzat datoz aurtengo sanmigelak. Auzoa lo eta lotsa auzoan.

NIRE USTEZ

Azpeitia



NAGORE CANCIO
ARGAZKILARIA

Burdinbide zaharrak naturaren altzoan, iraganeke bidaia baten oroitzapen ederra.



SEMAFOROA

Errekara irteera arriskutsua



"Udaltzaingoaren bulegotik erre-kara doan bidea itxi egin behar-ko litzatekeela iruditzen zait. Umeek hara joateko ohitura hartu dute, jolastera, eta eskai-leretatik erreka aldera jaisten dira. Ume oso txikiak dira asko, 8 urte ingurukoak, baina 4 ur-teko batzuk ere ikusi izan di-tuzte. Beste leku batzuetan erre-kara jaisteko irteerak itxi-ta daude, eta han ere ate bat jartzea ondo egongo litzateke".



Hormak margotzen dituenari



"Inígez Karkizao kaleko lurrazpiko pasabideko hormak margotzen dituenari esan nahi nioke aurkitu dezala beste lekuren bat bere artea islatzeko. Toki hura nahiko iluna da, eta grafiti horiek are itxura eskasagoa ematen diote pasabideari. Hiru aldiz garbitu dute horma, eta, hala ere, berriro margotzen du. Errespetu falta handia iruditzen zait".

Mintxetako gimnasioa



Herritar batek eskerrak eman nahi dizkie Danobati eta Elgoibarko Udalari, Mintxetako gimnasioa berritzeko egindako lanagatik: "Mila esker, Danobat eta Elgoibarko Udala, muskulazio gela berria egiteagatik. Zuen ekimenari esker, adin guztietako herritarrentzat erabilgarria den azpiegitura modernoa daukagu".

Stock azoka eta ginkana antolatu ditu Txankakua merkatari elkarteak urrirako

5.000 euro banatuko dituzte ginkana osatzen duten herritarren artean

Ainhoa Andonegi

Herriko merkataritzak sustatzeko bi ekimen antolatu ditu Txankakua hilabete honetarako: udazkeneko ginkana eta stock feria.

Urriaren 5ean abiatuko dute lehena, eta ginkanan izena eman duten Txankakuaren sei dendatan egin beharko dituzte erosketak herritarrek, urriaren 31ra bitartean. Erosketa bakoitzeko zigilu bat jasoko dute, eta kartila betetzen dutenean, elkarteak dendaren batean entregatu beharko dute, norberaren datuak jarrita. Zozketa azaroaren 4an egingo dute, eta 5.000 euro banatuko dituzte saritan: 500 euroko bi sari eta 200 euroko hogei.

Stock azoka

Udazkeneko ginkana gain, stock azoka ere egingo du elkarteak datorren astean. Urriaren 1etik

3ra bitartean kalera aterako dituzte dendek euren produktuak, eta herritarrek merkeago erosteko aukera izango dute. Stockean dituzten produktuei bide emateko modua da dendari entzatzat, eta herritarrentzat,

aldiz, produktuak merkeago erosteko. Denden ordutegian egingo dute azoka.

Elkarteak herrian erostea saritu nahi du, eta denda txikietan erostearen garrantziaz kontzientziatu nahi ditu herritarrak.



Herritarrak, denda baten atarian. ASIER ORBEA

Isiltasunaren Eskola aurkezteko hitzaldia, gaur, Musika Eskolan

Orain dela hamar bat urte jarri zuten martxan Elgoibarko Isiltasunaren Eskola, eta, ordutik, gogoetarako eta hausnarketarako biltzen da herritar talde bat, hilerio, Jose Cruz Igartua apaizarekin. Kanpoko ikusteko lehenengo barrura begiratu behar dela diote ekimenaren arduradunek, eta horretan saiatzen dira; alegia, norberak barruan duen hori ezagutzen.

Elgoibartarrak egitasmo horretara batzeko bigarren deialdia egin nahi dute orain eskolaren sustatzaileek. Horretarako, eskolaren jarduna eta helburuak azaltzeko bilera egingo dute gaur, irailak 25, musika eskolako auditoriumean, 18:00etan. Deialdi irekia da. Informazioa ematea izango du helburu bilerak, eta, hain zuzen, ahalik eta herritar gehien batzea nahi dute eragileek.

24/7 plataformak irailaren 30ean ekingo dio ikasturteari

24/7 plataformako kideek borrokan jarraitzen dute, eta, udako etenaldiaren ostean, irailaren 30ean ekingo diote berriz ikasturteari. Anbulatorioan ekingo dute elkarretaratzea, eguaztenean, 12:00etan, Osakidetzari eskatzeko Elgoibarko anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta eguneko 24 orduetan zabaldu dezala.

Plataformako arduradunek adierazi dutenez, Osakidetzaren egoerak hobera egin beharrean okerrera egin du, eta lehen baino okerrago dago: "Ebakuntzetan, probetan eta bestelako zerbitzuetan atzerapenak piltzen jarraitzen dute, eta begi-bistakoa da inor ez dagoela egoera horrekin gustura: ez profesionalak, ezta erabiltzaileak ere". Egoera horren harira, inoiz baino beharrezkoago ikusten dute herritarrek protestara batzea; beraz, elkarretaratzean parte hartzeko dei egin diete.

ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA

Urriak 1-2
10:00-13:00 eta 17:00-20:00

Urriak 3
10:00-13:00

Postuak establezimendu atarietan egongo dira.

Parte hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira.

ELGOIBAR
UDALA / AYUNTAMIENTO

TXANKAKUA
ELGOIBARKO MERKATARIAK

Euskadi, argalena, bizi camin

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Saltokien zerrenda

AGURTZANE ILE-APAINDEGIA
AINHOA DENDA
ALAIN AFFLELOU OPTICO Y AUDIOLOGO
ARANBURU BITXI-DENDA
ARAUARI LURRINDEGIA
ATELIER OIHANA
BARRUTIA OPTIKA
CASA ASTIGARRAGA GYS SPORT
ECENARRO LENTZERIA
G & M JANTZI-DENDA
GARATE JANTZI-DENDA
HENKO
IPINTZA MARGOAK
IRIONDO KIROLAK
LAGUNAK KOLTZOI-DENDA
LETE
MERAKI ILE-APAINDEGIA
MILZARPAS
NALAI OINETAKOAK
OLAIA MARTINEZ ESTETIKA ZENTROA
PITXINTXU
ROTETA ELEKTRIZITATEA
SARA JANTZI-DENDA
UZURI OPTIKA

400€ zozketa erosketa-txarteletan



Obrako irudi bat. ASIER ORBEA

Urazandiko bizilagunei sortutako kalteak ordaintzeko diru-poltsa bat eskatu du Bilduk

Datorren asteko osoko bilkuran aurkeztuko dute mozioa

Ainhoa Andonegi

Errezabalgo egoitza egiteko lanek Urazandiko bizilagunen etxeetan eragindako kalteak ordaintzeko diru-poltsa bat aurreratzen eskatuko du Bilduk, mozio bidez, datorren asteko osoko bilkuran. Funts hori behin-behineko aurrerakin gisa ezartzea proposatzen du ezker koalizioak, eta dio horrek ez lukeela, "inola ere", enpresaren erantzukizuna eza batzea ekarriko.

Bildutik azpimarratu dute herriarren eskubideak eta ongizatea bermatzea lehentasunezkoa dela, eta, ondorioz, Urazandiko bizilagunek ez luketela dirurik aurreratu behar beren poltsikotik obra publiko batek eragindako kalteak konpontzeko. Gaineratu dute auzotarrak kalteen arduradunen balizko atzerapen ahaleginen eta aseguru etheen errekurtsoen artean harrapatuta geratzeko beldur direla: "Ohiko egoerak dira biak; haren eredu bat San Bartolome kalean erori zen etxeko kasua dugu". Hori dela eta, Bilduk uste du Udalak "jarrera aktibo eta arduratsua" hartu beharko lukeela, Errezabal egoitzako obrak amaitu arte

itxaron gabe eta enpresak ezarritako prozeduren edo aseguru-etxeen ebazpenetara baldintzatu gabe.

Lanak hasi zirenetik urtebete baino gehiago igaro da. 2026ko martxoko osoko bilkuran, 2026ko apirilaren 1etik aurrera obrak geldiaraztea adostu zuten, eta, ezarritako baldintzen artean enpresak geldialdi haren ondoriozko gaitzaren erantzukizuna bere gain hartzea zegoela adierazi du Bilduk. "Momentuz, gaitzaren horien zenbatekoaren kuantifikazioa ez dugu ezagutzen, eta konponketak egiteko epea eta prozedura ere ez da askorik argitu. Isiltasun honek eragiten duen zalantza eta ziurgabetasunari aurre egiteko, kaltetu horietako batzuk beren kabuz konponketa lanak egiteko saia-keran dabilta".

Funts horrek ez luke "inola ere" enpresaren erantzukizuna ezabatzea ekarriko

Lau eskaera

Mozioak lau eskaera biltzen ditu:

1. Udal teknikariak baloratu-tako partida ekonomiko edo funts bat ezartzea, obra amaitu arte atzeratu ezin diren konponketak finantzatzeko, bereziki segurtasunari, bizigarritasunari edo egiturazko kalteei eragiten dieten kasuetan.

2. Udalak kaltetu bakoitzarekin hitzarmen bat sinatzea, ordainketa egitean eskubideen lagapena jasota gera dadin, gerora aseguru-etxearen aurrean erreklamazio judiziala arazorik gabe egin ahal izateko.

3. Udalak obra horren komunikazioaren arduradun gisa kontratatutako langileak kalte-tuei arreta eta haiekin zuzenean bete beharreko prozedura arduratzea, beharrezko informazioa eskaintzeaz gain, espediente bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua eginez.

4. Udalak beharrezkoak diren prozedura guztiak abian jartzea, obraren enpresa esleipendunari, Viuda de Sainz/Urdirberri enpresari, edo harekin lotutako erakundeei, konponketa horiek egiteko aurreratutako zenbatekoak erreklamatzeko.

'Elgoibartik mundura' egitasmoan izena emateko epea, zabalik

Elgoibarko ikastetxeek elkar-teei, merkatariei, ostalariei eta herrian zerbitzuak eskaintzen dituzten profesionalei webguneak sortzen laguntzeko ekimena da *Elgoibartik mundura*. STEAM bokazioak sustatu nahi ditu –hala nola zientzia, teknologia, ingeniartza eta matematika–, baita euskararen erabilera ere arlo

horretan. Horrez gain, *Puntueus* domeinuaren ikusgarritasuna ere areagotu nahi du.

Laugarren edizioa abiatu dute eragileek, eta interesatuek urriaren 30era arteko epea dute izena emateko. Partaideek kosturik gabe garatu ahal izango dituzte webguneak, eta, gainera, doan izango dituzte domeinua eta webgunea gordetzeko *hosting*-a lehenengo urtean. Harremanetarako: *kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus* / 643 49 91 69 (Amaia Lasagabaster).

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

TERXYPUR®

LAGUNAK
colchonaria textil hogar

1. Stretch ehuna / 2. Poliester zuntza
 3. Soja natural ez-transgenikoaren biskolastika
 4. Poliester / 5. Ehungintza TB
 6. Soja natural ez-transgenikoaren biskolastika
 7. Soja natural ez-transgenikoaren Terplus nukleoa
 8. Platabanda / 9. Ehungintza TB / 10. Poliester / 11. Poliester zuntza / 12. 3d ehun inistagailza

Moldagarria, transpiragarria, termoaldakorra, ergonomikoa, presioaren aurkakoa, alergiaren aurkakoa eta akaroen aurkakoa

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
 www.textil lagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!

LED HISENSE 50A6S TELEBISTA

299 € **A+ E**

- UK UHD
- Smart TV
- Jolas modua +
- Dolby vision
- Ahots bidezko kontrola
- 3 HDMI
- 2 USB

Hisense **OFFICIAL SPONSOR** **UHD 4K**

MILARBIRE Ubitarte, 11 - 943 741 487
 bire@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Jon Aranaa
 Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 943 740 704 - 639 047 337
 Autolehenetik ostiralerara:
 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbata: 11:00 - 13:00

Erreklamazioak: zerbizua daukagu. Datu ordu harteko.

San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburuan Aiastian

Bihartik irailaren 29ra arte izango dira ospakizunak auzoan

Ainhoa Andonegi

Irailaren 29an San Migel eguna dela eta, jaiak ospatuko dituzte asteburuan Aiastian. Zapatuan hasiko dituzte ospakizunak, eguerdian, eta martitzenean amaituko dira festak; hain zuzen ere, San Migel Egunez. Kanpaiak joko dituzte bihar, 12:30ean, jaiak hasiteko, eta goizaldera arte luzatuko dute eguna. Umeentzako jolasak, bazkaria eta bola-txapelketa izango dira, besteak beste, eta iluntzean, Haritz dantza taldeak emanaldia egingo du, ohi bezala, Borja Uzuariagaren omenez. Auzora bertaratzeko autobus zerbitzua egongo da, Txarridunako biribilgunetik, 17:00etatik 02:00ak arte.

Domekan, berriz, Aiastia Trail lasterketa egingo dute, CATT Morkaikok antolatuta. Mendi

lasterkariak 6,5 kilometroko ibilbidean lehiatuko dira. Morkaikupe pilotalekutik abiatuko dira parte hartzaileak, Zirardamendiko tontorreraino. Gailurraren bestaldean dagoen pistatik egin beharko dute

jaitsiera frontoiraino, eta anoa-postua izango dute bertan. Indarrak berreskuratu ondoren, Morkaikora igo beharko dute, eta handik berriz jaitsiko dira, frontoian kokatuko duten helmugaraino.



Haritz dantza taldearen emanaldia. MIKEL ASKASIBAR

Semaforoak jartzen ari dira Arriaga industrialderako sarbidea arintzeko

A.A.

Udalak aditzera eman duenez, semaforoek trafikoaren antolaketa hobetuko dute Arriaga industrialderako sarbidean, eta, horri esker, inguru hartan oinezkoen eta ibilgailuen arteko segurtasuna nabarmen handituko dela gaineratu dute arduradunek. Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean

lizitatu ditu semaforoak jartzeko lanak, Girder eta Sener enpresen proiektuan oinarrituta, eta lizitazioa eskuratu duen Otegi Gaztañaga SL enpresak exekutatu ditu lanak, 166.974,14 euroko aurrekontuarekin –BE-Zik gabe–. Aste honetan hasi dituzte obrak, eta, ondo bidean, hamabi astean bukatu beharko dituzte.



Industrigunerako sarbidea. UDALA

Musikak hartu zituen Maala eta Aita Agirre asteburuan

A.A.

Bi musika-saio izan ziren auzoan asteburuan: ostiralean, Sinuosek antolatutako *Sotoko hotsak* jaialdia egin zuten, Aita Agirreko arkupeetan. Xabier Badiola bakarlari eibartarrak jo zuen lehenengo, eta, ondoren, Gailu taldeak eman zuen kontzertua. Zapatuan, berriz, tekno musikak hartu zuen Maala, arra-

tsaldean, eta gauean, gaztetxean jarraitu zuen festak. Alternative Division elkarteak antolatu zuen Osynth Eguna, Udalaren laguntzarekin. Aurtengo kartelburua Matteo Manfellotti musikari eta soinu ingeniari italiarra izan da; Waveratio 618 proiektuaren sortzailea, alegia. Antolatzaileak gustura daude aurtengoak emandakoarekin.



Xabier Badiola. SINUOSE



Maalako emanaldiaren irudi bat. CABRERA

TERTULIAK programa

euskaraz berba egiteko beste aukera bat

Astean ordubete, dakizuna hobetzeko eta ez dakizuna ikasteko. Eta gainera, doan! Euskaraz jarduteak ez daukalako preziorik.

Animatu eta eman izena urriaren 16a baino lehen!

Izena emateko eta informazio gehiagorako:

Elgoibarko Izarra (943 741 626) / elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

AEK euskaltegia (607 601 423) / elgoibar@aek.eus

Udal Euskaltegia (943 742 731) / udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



Axular Aldazabal txirrindulari durangarrak irabazi du Elgoibarko Hiria Saria

Asier Orbea ELGOIBAR

Axular Aldazabalek (Cafe Dromedario-Flotamet) irabazi du Elgoibarko Hiria Saria probaren 46. ekitaldia. Txirrindulari durangarrak aitortu du egutegian gorritz markatuta zuela proba, eta gogo handiz prestatuta joan zela. Haren ezaugarrietara ondo

moldatzen zen ibilbidea zela ikusi zuen –iaz, hirugarren izan zen–, eta Idotorbeko aldapa pikoan erakustaldia eginda gailendu zen zapatuan. Ihes eginda gurutzatu zuen helmuga-marra. Ampo taldeko bi txirrindularik osatu zuten podiuma: Eritz Atxegak eskuratu zuen bigarren

postua eta Haritz Zunzunegik, hirugarrengoa. Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolako zortzi txirrindulari lehiatu ziren: Xabi Barrueta (kadetea), Aimar Gonzalez, Unai Cornejo, Arkaitz Ilarduya, Unai Mondragon, Fran Jayder, Manex Larrañaga eta Izortz Llodio.



Sari banaketa ekitaldia, Idotorben. ASIER ORBEA



Axular Aldazabal, azken metroetan. A.O.

Markel Kerexeta txapeldunorde izan da Urretxuko Xake Txapelketan

Zubiondo taldeko ordezkariak garaipena zaildu zion faboritoari

A.O.

35 xakelari lehiatu ziren zapatuan Urretxun, Santa Anastasia jaien barruan jokatu zuten Urretxuko Xake Txapelketan, eta bigarren postua eskuratu zuen Elgoibarko Zubiondo taldeko Markel Kerexeta Zabalak.

Lehia estua

Sei erronda jokatu ostean, Bilboko Conteneo klubeko Juan Manuel Ruiz Abad xakelaria gailendu zen, 5 puntu eskuratuta. Txapelketa irabazteko faborito nagusia zen Ruiz Abad, hark baitzuen ELO puntuaziorik altuena partaideen artean. 2.233 puntu ditu FIDE Nazioarteko Xake Federazioaren sailkapenean. Markel Kerexetak 1.875 puntu ditu sailkapen horretan, Urretxun lehiatu ziren xakelarien artean bosgarren puntuaziorik handiena, baina haien



Markel Kerexeta, zutik, eskuinean, sari banaketa ekitaldian. OTAMOTZ

aurretik sailkatu zen. Irabazleak adina puntu eskuratu zituen Kerexetak, 5 puntu. Beasaingo

Alfil taldeko Sergio Bellosillo Perez sailkatu zen hirugarren postuan, 4,5 punturekin.

Bizkaiko txapela irabazteko aukera handiekin iritsi da finalera Ibarluzea

A.O. ELGOIBAR

Hamaika jardunaldi jokatu eta gero, Markina-Xemeingo Lauzika bolatokian jokatu dute Bizkaiko Hiru Txirlo bola-joko txapelketaren finala, urriaren 3an (12:00).

Angel Ibarluzea bolari elgoibartarrak Mallabiko Goita taldea ordezkatu du, eta bolaririk erregularrarena izan

da orain artekoan, sailkapeneko lehen postuan ailegatu baita azken tiraldira. Asterrikako (Berriatua) eta Santa Eufemiako (Aulesti) bolatokietan jokatu zituzten azken jardunaldiak, eta bietan Mateo Goenaga gailendu da. Aulestikoan bosna txirlo bota zituzten sailkapeneko lehen hiru sailkatuek: Goenagak,



Aulestin jokaturako tiraldiko lehen sailkatuak. LAGATAKOA

Atletismo jardunaldia egingo dute, bihar, Eskola Kirolaren baitan

A.O. ELGOIBAR

Eskola Kiroleko partaideek atletismo jardunaldiarekin hasiko dute ikasturtea, bihar, hilak 26. Hainbat probatan trebatu eta lehiatuko dira, Mintxetan, 09:30etik 11:30era.

Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako 6 eta 12 urte bitarteko 270 bat eskola umek hartuko dute parte Eskola Kiroleko ikas-

turte honetan. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, aurtengo prestatu duten programazioak talde-kirolen presentzia indartuko du, Elgoibarren sustraituta dauden modalitateei garrantzi handiagoa emanez, eta herrian ohikoak diren beste kirol batzuei ere egingo die lekua, "ikasleen parte-hartzea eta aniztasuna sustatzeko".



Kirol Campuseko partaideak, atletismoan, ekainean. ASIER ORBEA

"Bereziki, 16 eta 18 urte arteko gazteen boom halako bat igarri dugu gimnasioan"

JON PEÑAGARIKANO AGIRRESAROBÉ ABILION ENPRESAKO ARDURADUNA

Ainara Argoitia MENDARO

Aurrerantzean, eguerdietan ere zabalik izango da udal gimnasioa, asteen hiru egunetan: martitzen, eguen eta barikuetan. 2020an zabaldu zuten gimnasioa, eta aspaldikoa da eskaera hori. Herriko erabiltzaileek eurek eskatu zuten, baina baita Mendaron lan egiten duen kanpoko jende askok ere, eguerdiko etena ariketa fisikoa egiteko baliatzen dutenak. Abilion enpresak kudeatzen du sorreraz geroztik gimnasioa, eta hango arduradun da Jon Peñagarikano.

Zazpigarren urtea du gimnasioak. Zer garapen izan du urteotan?

Pandemia garaian zabaldu genuen, herritar guztiei zerbitzua emateko bokazioarekin, baina aitortuko dizut zailtasun asko izan genituela hasieran. Joan zen garai hura, baina, eta hasi zen jendea etortzen, gero eta gehiago. Hasieratik izan ditugu bi helburu: ahalik eta adin tarte zabalenaren beharrei erantzutea eta zerbitzu ahalik eta pertsonalizatuena eskaintzea. Hori da, nolabait, gure bereizgarria, eta horretan oinarritzen da gure lan-sistema. Gaur egun, hiru gidari daukagu gimnasioan,

erabiltzaileei jarraibideak eman eta behar dutenean laguntzeko. Gorputza bere osotasunean lantzeko plan bat dute diseinatua, gihar-talde bakoitza entrenatzeko ariketak proposatzen dituenak, eta gero, erabiltzaile bakoitzaren beharretara egokitzen dute; izan ere, garbi dago denok ezin ditugula ariketa berberak egin.

Zenbat erabiltzaile daukazue?

110 inguru. Hilabetearen arabera aldatzen da hori, baina, gutxi asko, 110. Udako hilabeteak izaten dira kaskarrenak, bereziki abuztua; eta iraila, urria eta urtariletik martxora artekoak, jendetsuenak.

Norbere buruari helburuak jarri eta beteko ditugula promes egiteko hilabete horiek, alegia.

Horiexek, ba. Ez da ohitura onea bi hilabetera mugatzea norbere zaintza, baina egia da oraindik ere jende askok duela pentsaera hori. Hala ere, gero eta gutxiago dira horiek.

Gimnasia joaten direnen profila aldatzen ari al da?

Ez dakit horrenbeste den, baina esango nizuke bi adin tartetan igarri dugula, bereziki, gorakada: 60 urtez gorakoetan eta 18 urtez azpikoetan. Nabar-

mentzekoa da, era berean, erabiltzaileen %60tik gora emakumeak direla hemen. Gizonen artean errota egon da beti kirola egiteko ohitura, eta asko dira bakarka irteten direnak zerbait egitera. Aldiz, emakumeek nahiago dute egiten duten ariketa fisiko hori ondo egiten dutela ziurtatu, eta laguntza eta talde baten babesa nahi izaten dute. Emakumeak diziplinatuagoak dira. Askok hazi da, era berean, 16 eta 18 urte arteko erabiltzaileen kopurua. Duela bi-hiru urte galdetu izan bazenit, esango nizun bereziki 60 urtez gorakoetan igartzen zela gorakada; gaur, aldiz, 18 urtez azpikoetan. Bereziki, 16 eta 18 urte arteko gazteen halako boom bat igarri dugu.

Marketinean ere izan da aldaketa. Bai, zalantzarik gabe. Garai bateko mito asko hautsi dira. Lehen,

"Emakumeek nahiago dute egiten duten ariketa hori ondo egiten dutela ziurtatu"



Jon Peñagarikano, gimnasioko arduraduna, artxiboko argazkian. ASIER ORBEA

pentsatzen zen argaltzeko izerdia bota behar zela derrigor, eta marketinak ere beste jarduerak batzuk saltzen zituen, bihotz-taupadak azkartzen zituzten jarduerak: kardio ariketak. Orain, ebidentzia zientifikoak dio indarra lantzea askoz onuragarriagoa dela eta, gainera, adin tarte guztietan egiten duela on. Bereziki emakume asko etortzen dira orain indarra lantzerako. Gauzak aldatzen ari direla erakusten du horrek. Lehen, emakumeek ez zituzten hain gustuko ariketa horiek, uste zutelako

gihartsuegi jartzeko arriskua zekarrela horrek eta hori ez zettorrela bat emakume estetikarekin.

Arriskuez ohartarazten gaituzte fisioterapeutek eta. Zer diozu?

Zalantzarik gabe, teknikak eta kargak ondo kudeatzea oso da garrantzitsua. Inportantea da ondo planifikatzea egiten ari garena, eta teknika ondo zaintzea. Beste uste oker bat ere badago zabaldua: zenbat eta karga gehiago hartu orduan eta hobeto dela. Hori zaintzen laguntzen dute gimnasioko arduradunek.

Lesiotik erabat osatuta, podiumera igo da Maiores Eslovenian, UTMBko ultra baten

Sei aste barru Mallorcan jokatu den UTMBko beste proba bat du begiz jota

A.A. MENDARO

"Pozik nago emaitzarekin, ez dut minik sentitzen, eta sei aste barru Mallorcan jokatu dugun UTMB zirkuituko beste lasterketa baten daukat orain burua". Maite Maioresaren hitzak dira, Eslovenian UTMB zirkuituko Julian Alps Trail lasterketan bigarren sailkatu ostean egindakoak. Bariku gauzei irten ziren korrika, Radvljicatik, eta, 122 kilometro eginda eta bidean 5.855 metroko desnibel metatuta gaudituta, zapatuan helmugaratu zen mendaroarra, biga-

rreren, atzetik aurrerako lasterketa eginda –gehienez 32 ordu zituzten lasterketa bukatzeko eta 15.53.48ko denboran osatu zuen Maioresak–. Helene Daisy alemaniarrek irabazi zuen lasterketa eta Ivana Colaric serbiarra izan zen hirugarren.

Lasterketan zehar izandako sentazioekin ezin pozago dago mendaroarra. Izan ere, lesio larri batetik zetorren. Iaz, muskulu iskiotibialak apurtu zituen eta ebakuntza egin behar izan zioten. Ezinbestean geldirik egon beharra iritsi zitzaion geldirik

egoteko jaioa ez denari, eta pentsatzekoa da luze egingo zitzaioala errehabilitazio aldia. Maiores aitortu du korrika egiteko moduan jartzea beste helbururik ez ziola jarri bere buruari min hartu zuenean, eta bistan da bete duela helburua. Udan hiru maratoni jokatu ditu, bere burua "probatzeko", eta, dena "uste baino hobeto" irten zaiola ikusita, aitortu du indartsu sentitzen dela jarraitzeko: "Gero eta zaharragoa naiz, baina eutsi egin nahi diot honi, ahal dudana bitartean".

Hilario Rodeirok kontzertua emango du gaur zortzi, taldearekin

Hilario Rodeiro Quintet taldearen kontzertua iragarri dute Mendaron gaur zortzizirako -urriak 2-. Mesa 7 elkarteak antolatuta, Uztargi tabernaren, Gararock taldekoei eta Udalaren laguntzarekin, eta San Agustin kulturunean izango da emanaldia, 21:30ean hasita. Sarrerak 15 euroan jarri dituzte salgai eta

nahi dituenak eskuragarri ditu Uztargi tabernan. Hala ere, egunean bertan ere salduko dituzte kulturguneko sarreran.

Bateria jotzaile galiziarra da Hilario Rodeiro (Santiago Compostela, 1981), jazz moderno folkloreakin nahasten maisua. Gaur zortziko kontzertuan ez da bakarrik ariko, hala ere. Izan ere, lau musikari handi izango ditu ondoan oholatzen: Kike Arza kontrabaxuarekin, Mikel Andueza eta Julen Izarra saxo barenekin, eta Juan de Diego tronpetarekin.



Balleta
eta dantza modernoaren koreografiak.
Haurrak - Gazteak - Helduak

Deitu! 667 51 91 53

Aurreikusi baino bi hilabete lehenago hasiko dira mendebaldeko saihsbidea egiten

Proiektua esleitu da jada, azaroan hasiko dituzte obrak eta hiru urte iraungo dute

Ander Gomez ERMUA

Mendebaldeko saihsbidearen lehen faseko lanak azaroaren hasieran abiatuko dira, aurreikusitakoa baino bi hilabete lehenago. Interbiak-eko Administrazio Kontseiluak obren esleipena onartu du asteon, Bizkaiko Intxausti eta Bycam enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari. 21.142.041,59 euroko aurrekontua dute, eta 36 hilabetezko gauzatze epea aurreikusita.

Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak azaldu dutenez, azpiegitura horren bidez "trafikoaren zati bat Ermutik kanpo eramatea eta herrigunean zein inguruetan zirkulazioa eta bide-segurtasuna hobetzea" dute helburu.

Biribilgune eta zubi berriak

Lanak N-634 errepedean hasiko dira, eta BI-3302 errepedeko Urtiako biribilgune berrian bukatu. Gainera, bigarren faseko azpiegiturarekin lotura egiteko prest lagako dute, Izarra Zentroaren alboan eraikiko den biribilgunearen bitartez. Horrela, ibilbide berriak hiru biribilgune nagusi izango ditu: Izarra-



Biaduktu batek lotuko ditu Izarrako eta Zearrekoko biribilgune berriak. ESTEYCO

koa, Urtiakoa eta Zearrekokoa; eta horien bidez trafikoa "modu seguruagoan eta eraginkorragoan banatzea" espero dute.

Eraikiko diren egituren artean handiena Urtiako biaduktua izango da: 100 metro luze izango da, izen bereko errekaaren harana zeharkatuko du, eta altzairuz eta hormigoiz egingo da. Zubitegi errekaaren gainean ere zubi berria egingo dute. Egungoa ordezkatzeko du, eta, horri esker, ibilguaren egoera hidraulikoaren eta ingurumenaren egoera ho-

betu egingo direla nabarmendu dute. Hirugarren egitura Izarrako sakonunearen gaineko zubia izango da, 36 metroko luzerakoa. Zubi horrek bidearen jarraitutasuna bermatuko du eta etorkizunean bigarren fasearekin lotzeko aukera emango du.

Segurtasuna bermatzeko neurriak
Errepideak errei bana izango du noranzko bakoitzean, metro bateko bazterbideak, eta hainbat euste-horma bidean zehar. Abiadura-muga 60 kilometro ordukoa

izango da saihsbidean eta 30 kilometro ordukoa biribilguneetan. Herrigunerako sarbide bat egingo dute, 20 kilometro orduko abiadurara mugatua, eta oinezkoentzako bidea egun dau den espaloiekin lotuko dute. Horrela, oinezkoen joan-etorriak "seguruagoak eta errazagoak" izango dira.

Ingurumena zaintzeko lanak

Obren eragina ahalik eta txikiena izan dadin, hainbat neurri hartuko dituzte, floraren, faunaren eta uraren kalitatea babesteko. Bioingeniaritzako teknikak erabiliko dituzte, ibaiertzeko ekosistemak babesteko eta ibilguak ura eramateko duen ahalmena handitzeko. Zehaztu dutenez, Zubitegi errekaaren inguruan jarriko dute "arreta berezia": ez dute bertan lanik egingo martxoaren erdialdetik uztailearen bukaerara arte, eremu hura ur-ipurtatsaren -bisoi europarra- babesgune bezala izendatuta dagoelako.

Bestalde, paisaia leheneratzeko lanak ere egingo dituzte. Zuhaitz autoktonoak landatuko dituzte; besteak beste, haritz atlantikoak eta Kantauriko haltzak. Horrez gain, ezpona eta ibaiertzeko landaredia berreskuratuko dute.

Bigarren fasea

N-634/BI-3344 eta BI-2301 errepideak lotuko dituzte Mallamen-

diko bigarren faseko obrek, eta gaur egun Goitondoko industrialdera joateko Ermua zeharkatzen duen trafiko astuna herrigunetik kanpo bideratzea ahalbidetuko dute. Horrela, "zirkulazioa eta bide-segurtasuna hobetzeaz gain, herritarren bizi-kalitatea hobetzea" ere espero dute.

Bestalde, Foru Aldundiak bi urtez luzatu du bigarren fase honetako laguntza tekniko eta ingeniari-tza-lanen kontratua, ABEEK proiektuaren garapenean parte hartzen jarrai dezan. Zehaztu dutenez, luzapenak ez du eraginik izango Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Foru Sailak ezarritako lan-egutegian.

Bigarren fase hori lehenengoa bukatu bezain laster abiatuko da; hala baieztatu zuen Carlos Alzaga foru-diputatuak maiatzean Ermuan egindako agerraldian. Proiektua dagoeneko idazketa-fasean dagoela aurreratu zuen, eta, aurreikusitako egutegia betez gero, 2029 bukaeran hasiko lirakeke Mallamendiko obrak.

21.142.041,59
euroko aurrekontua
dute lanek eta 36
hilabetezko gauzatze
epea aurreikusi da

Ermua Antzokiak gaur ekingo dio udazkeneko programazioari

Antzezlan, kontzertu eta gainontzeko ikuskizunetarako sarrerak salgai daude jada, Lobianon zein Kutxabanken webgunean

A.G.

Joan den barikuan, arazo teknikoengatik bertan behera geratu zen udaberriko programazioari *ZirKuSS* ikuskizuna egin zuten, Donostiako *Sustrai* konpainia donostiarraren eskutik. Udazkeneko programazioaren estreinaldi ofiziala, ordea, gaur izango da, eta Imanol Arias ermuarrak egingo du. Maria Barrancorekin batera, *Mejor no decirlo* obra taularatuko du antzokian, eta urte asko elkarrekin daraman bikote baten eguneroko gorabeherak umorez kontatzeko dituzte.

Pertsonaia ezagunen eta anonimoen bizitzak

Gaurkoa ez da antzezlan bakarria izango. Urriaren 23an, Carmen Moralesek duela hogeitau urte zendutako amaren bizitza eta abestiak berreskuratuko ditu, *Rocío Dürcal es inolvidable* ikuskizunean. Azaroaren 13an, Jose Sacristanek *El hijo de la cómica* bakarrikzeta taularatuko du, Fernandoren Gomezen haurtzarora eta bizitza kontatzen duena; eta 27an, Magma Mia konpainiak *Jo!* aurkeztuko du, boxeoan egingen ari diren bi lagunaren arteko topaketaren gaineko antzez-



Karmentok emango du lehen kontzertua.

lan umoretsua. Abenduaren 18an, Histrion Teatrok *Dysphoria* aurkeztuko du, ama baten eta alaba nerabearen arteko gatazketatik abiatuta. Antzerki programazioa abenduaren 30ean itxiko da, Yllana eta Primitiva Brothersen *Madness* komedia musikarekin.

Sustraiak eta fusio berriak entzungo dira

Kontzertuei dagokienez, urriaren 2an, *La Serrana* disko neofolklorikoa aurkeztuko du Karmentok; eta 16an, Arcok, El Puchero del Hortelano buru ohiak, rock andaluziarra eta flamenko-fusioa ekarriko ditu Ermura. Azaroaren 6an, Ruper Ordorika izango da, Mugalariekin batera, *Lurra ikutu barik* aurkeztzen; eta 11n, Pedro Pastor y Los Locos Descalzos taldeak hamar urteko ibilbideari errepasoa egingo dio, cumbia, funka, musika afrikarra eta folklore latinoamerikarra nahastuz.

Ohikoa den moduan, blues kontzertuen zikloa ere egongo da Lobianon. Urriaren 17an, Greg Izor Blues Quartet ari-tuko da; azaroaren 7an, Dani Nel-lo & Organ Trio; eta abenduaren 12an, Andhrea & The Black Cats.

Bestelako ikuskizun bereziak

Urriaren 24an, Markeliñeren *Hodei guztien gainetik* lanak hasiko du haur eta familientzako ikuskizunen egitaraua; jolasteko plazera ahaztu duen aita baten istorioa kontatzen du. Azaroaren 21ean, Benetan Be konpainiak *Bidutzi* taularatuko du; Aratuste gaua irudikatuko du, eta beldurra eta umorea tartekatuko ditu. Abenduaren 26an, Anita Maravillasek *Tretatxu* bidelapuraren istorioa aurkeztuko du. Eta 29an, *ZKZ '26* zirku-gala ospatuko da.

Bestalde, urriaren 30ean, San Martin Azokaren bertso jaialdia egingo dute, eta Iruñe Basagoiti ermuarrarekin eta Aritz Katarain mallabitarrarekin batera izango dira Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Mendiluze eta Aitor Etxebarriazarraga. Azaroaren 20an, Santa Zezilia Jaialdia egingo dute, Alboka Musika Eskolako ikasleen eta Txindurri taldeko dantzarien eskutik.

"Ermua da antzeztu ondoren etxean amarekin lo egiten dudan leku bakarra"

IMANOL ARIAS DOMINGUEZ
AKTOREA

Imanol Ariasek eta Maria Barrancok 'Mejor no decirlo' antzezlana taularatuko dute gaur, 20:30ean

Garazi Mendieta

Imanol Arias aktorea Ermua Antzokira itzuliko da gaur, *Mejor no decirlo* antzezlanaarekin. Oroitzapenak, antzerkiaren indarra eta zuzenekoaren magia hizpide, aktoreak bere jaioterri- ra itzultzeak duen esanahiaz eta oholtza gainean urte hauetan ikasitakoaz hitz egin du.

Urte asko daramatzazu aktore lanetan. Zer du oraindik antzerkiak beste formatuetan aurkitzen ez duzuna?

Antzerkia beti izan da ikuskizun huts bat baino gehiago. Topaketa bat da, asanblada bat; zerbait entzuteko eta zuzeneko ikuskizun bat ikusteko borondatez elkartzen den jende-talde bat. Bertan egoteak, zuzenean izateak eta ikusleen begien aurrean egiteak ikusleari oso zeregin garrantzitsua ematen dio.

Egunero obra bera antzeztzen baduzu ere, egunero aldatzen da, antzerkira doazen ikusleak desberdinak direlako. Horregatik da hain ederra. Eta oso ederra da hau egiteko aukera izatea ere.

Gaur, *Mejor no decirlo* lanarekin itzuliko zara Ermua Antzokira. Zer kontatzen du antzezlana?

Bi pertsonaren arteko elkarrizketa da, hitz egitearen eta entzutearen garrantziaren ingurukoa. Ez da testua esatea bakarrik; besteak esaten dizuna entzutea ere bada. Entzutea funtsezkoa da antzerkian, eta hori ere lantzen dugu ikuskizunaren barruan.

Maria Barrancorekin batera 140 emanaldi baino gehiago egin dituzu. Zer ikasten da hainbeste denbora elkarrekin oholtza gainean egonda?

Ez zaudela lanean bakarrik, oso bizirik egon behar duzula. Testua eta ikuskizunaren mekanika ikasi behar dituzu, eta erantzuten jakitea ezinbestekoa da. Oso presente egon behar duzu. **Antzerkiarekin hasi zinenetik gaur arte, zer ikasi duzu?**

Antzerkia beste modu batean ulertzen ikasi dut. Zineman plano berriak bilatzea, zerbait berria probatzea eta eszenak errepikatzea ohikoa da; antzerkian, berriz, kontrakoa gertatzen da. Kontu handiz ibili behar duzu, egunero funtzioa bizirik mantentzeko modua eraiki. Akats batek ere ez zaitu kezkatzen; akatsa opari bat da. Horri adi egotea ikasi dut.

Ermua itzuliko zara, gainera, zure haurtzarora eta gaztarora hemen igaro ondoren. Zer da zuretzat berri ere hemen antzezteak?

Ermua antzokian hainbat gauza egin nituen txikitari; beti izan naiz oso zinema-zalea, eta horiek antzokian egiten genituen. Zinemara joaten nintzen eta western filmen ikusle sutsua nintzen. Filmek lau ordu irautesen zuten, eta gogoratzen dut tartean zuten zen atsedenaldian nola etortzen zen ama ogitartekoa ematera.

Herrian zinemarekiko interesa genuen gazte-talde bat ginen, eta zinema-forumean ere hartzen genuen parte. Ez ginen zinema-



Imanol Arias, Txindurriren 50. urteurreneko dantza-erakustaldian, Ermura egindako bisitetako batean. PEDRO ELIZONDO

ra soilik joaten; ondoren, elkar-tu eta gure iritzia emateko aukera ere bagenuen. 19 urte bete arte bizi izan nituen oroitzapen horiek guztiak hor daude; oroitzapen horiek guztiak Ermuan dira.

Eta zer esan nahi du orain itzultzeak?

Ermua da antzeztu ondoren amarekin etxean lo egiteko aukera ematen didan munduko leku bakarra. 92 urte ditu eta beti izan du nirekin egoteko aukera. Beti aurkitzen dut eza-gutzen dudana jendea, eta herria nola aldatzen doan ikusten dut hona itzultzen naizen bakoitzean. Azkenaldian, amatxok adin bat duenez, urtean hainbat aldiz etortzen saiatzen naiz. Etxean antzezteak beti da oso polita.

Ba al dago kanpoan zaudenean faltan igartzen duzun ezer?

Mendia aurrean izatea etxetik ateratzean. Beti saiatzen naiz

mendira joaten hemen nagoe-nean; gaztetan ere egiten nuen, eta horrek berdin jarraitzen du. Eta amatxo ikustea, batez ere.

Gaur egun, Ermuak kultur eskaintza zabala du, eta izen handiko artistak eta konpainiak ere etortzen dira. Nola ikusten duzu bilakaera hori?

Hemen pertsona garrantzitsu asko egon dira. Cosme Cortazar, esaterako, nire aurrekoa da; 9 urte nituenean hasi nintzen harekin. Madrilerira iritsi, eta konpainia independente oso garrantzitsua sortu zuen. Eta Jesus Cimarro ere, Estatuko antzerki-ekoizle garrantzitsuenetakoa bat, Ermukoa da.

Cimarrok asko egin du antzerkiak presentzia izan dezan herrian, beti saiatzen baita haren konpainiek hemen ere geldialdia egin dezaten. Garrantzitsua dela

uste dut, eta, gainera, oso ondo funtzionatzen du.

Zergatik da garrantzitsua antzerkia herri baten bizitzaren parte izatea?

Antzerkiari esker jendea bere ohiko inguruetatik kanpo elkartzen da, entzuteko; hitz egiteko beharrean, istorio bat entzuteko eta ikusteko. Antzerkiak liluratzeko nauen gertutasun bat du: ikusle bat egon behar da gauzak gertatzeko.

Orain, jendeak oso modu indibidualan kontsumitzen ditu edukiak, eta gizarte bat indibidualizatzen denean ez dago erreferenterik, ez dago bestee-kin komunikaziorik. Neurri txiki batean bada ere, antzerkia kolektibitate-ekintza bat da gizarte indibidual honen aurrean.

140 emanaldi baino gehiago, eta guztietan aretoa beteta.

Hori da niretzat oparirik handiena. Egiten dizuna nahikoa dela erakusten duzu antzerkiak, eta norberaren nahikoa aurkitzea oso garrantzitsua da. Zorte handia da hori lortu izana, eta, gainera, egiten dudana horrek jendearengan eragina izatea.

"Antzerkia kolektibitate-ekintza bat da gizarte indibidual honen aurrean"

"19 urte bete nituen arte ditudan oroitzapen horiek guztiak Ermuan dira"

"Ilusioa egiten dit Ermura bueltatzeak eta lagunek nire zaletasun berria ezagutzeak"

RUBEN ALVAREZ 'RUBENCIO' MARGOLARIA

Ander Gomez

Hilaren 14tik, arratsaldero, Gastetiztik dator *Rubencio* ezizenez ezaguna den Ruben Alvarez Lozano margolaria (Eibar, 1969). Gustura egiten du bidaia, dioenez, Amañakoa delako –zehazki, Amaña B-koa, "gaur egun auzoaren izena mantentzen duen kale bakarra"– eta gazte garaia Ermuan eman duelako. Aspaldiko lagun eta hamarnaka herriararen bisitak ditu egunero, 60 akuarelaz osatutako bilduma ikusteko.

Koadro askok hostotxo gorri bat dute itsatsita behealdean. Zergatik?

Salduta daudenak dira. 120, 150 eta 300 euroan eskuratu daitezke. Garestiago izatearen arrazoia tamaina da; bestela, lana berbera da, edo zailagoa. Trenen eta loreen artean, adibidez, buruhauste gehien ematen didatenak loreak dira, gorroto ditut; kar-kar.

Bada, lore dezente dituzu bilduman. Denetik egin behar delako. Erakusketa zabala nahi nuen koloreei eta irudikatutako gaiei zegokienez.

Zein gai duzu gustukoen?

Itsasoak eta zeruak, batik bat. Ateak ere bai, detaileak egitea gustatzen zaidalako: arrakalak, hormetako pitzadurak, itzalak...

Akuarela ez da, ba, detaileak lantzeko teknika erraza...

Hasi eta lehen hilabeteen lagatzekotan egon nintzen. Baina, alabak erakutsitako bizpahiru trikimailurekin, pintura alde guztietara ez zabaltzea eta forma zehatzagoak egitea lortu nuen.

Zein trikimailu erabiltzen dituzu?

Loreak, adibidez, margotu beharrean, pintura zipriztinduz egiten ditut. Zeruen kasuan, pasaldi bakarrean egin behar dira, eta hiru minutu dituzu lehortu aurretik; kasu horretan, papera bi aldeetatik bustitzea da gakoa, bi minutu estra lortzen dituzu.

Zenbat denbora daramazu akuarela munduan?

Sei urte eskas. Baina aurretik ez dut bestelako teknikarik landu, ez nuen margotzen.

Ezta txikitzen ere?

Bai, etxe bat eta *seis y un cuatro, tu retrato*; kar-kar. Gero, Armeria Eskolan delineatzaile aritu nintzen, eta, agian, horrek hiru dimentsioak ulertzen lagundu dit; bestela, futbolari bati saskibaloian jokatzea eskatzea bezala da: biek baloi borobila dute; hortik aurrera, zerikusirik ez.

Eta nolatan zaletu zinen?

Alabak unibertsitatea hasi eta akuarela eskolak lagatzean esan nion: "Orain, nire txanda da". Gutxira, COVIDak sekuelak laga zizkidan, eta margotzeak arintzen dizkit minak. Gogorik ez dudanean, bozetoak edo *I+G+b* izendatzen ditudan proiektuak egitera behartzen dut neure burua.

Zertan datza *I+G+b* hori?

Gaizki ateratzen zaizkidan laneetan probak egitean, teknika berriak ikastea, akatsak nola zuzendu aztertzea... Eta bukatzen ditudanean ez ditut botatzen; moztu eta orri-markatzaile bihurtzen ditut, gertukoei oparitzeko.

Beraz, saiakera bakarrekoeak dira.

Beti. Ez dut aurretik praktikatzen. Behin hasita, emaitza emaitza da, eta, behin sinatuta, ez dut berriz ere ukitzen. Nire filosofia sinplea da: obra bakarra egiten dut eta obra bakarra saldu, ez nago NFTen kulturaren alde.

"Alabak unibertsitatea hasi eta akuarela eskolak lagatzean esan nion: 'Orain nire txanda da'"



Paisaiez gain, ate zaharretako detaileak margotzea atsegin duela dio *Rubencio*-k. A.G.

Horixe da zure Instagram kontuko aurkezpen mezua, *NFTrik ez, debeku-seinalearen emojiarekin*.

Sarean artelanaren kopia digitalak saltzen dira kriptodirua erabiliz. Hori egitea eskaini izan didate, diru askoren truke, baina ez dut onartu. Hain zuzen, Instagram kontua hackeatu zidaten horretarako. Orain, *@rubencioacuarelaeibar* bezala topatu nazakete. **Argi dago ez zarela mundu digitale-ra pasako, baina baduzu gogorik beste teknikarik probatzeko?**

Alabak akrilikoen maletatxo bat oparitu zidan, detaileak hobeto

lantzeko eta birpasatzeko aukera ematen dutelako, baina zabaldu barik dago oraindik. Akuarelekin maiteminduta nago, eta asko dut erakusteko oraindik. Lobianora etorri diren kuadrillako askok ez zekiten ezta margotzen nuenik ere, eta ilusioa egiten dit Ermura bueltatzeak eta lagunek nire zaletasun berria ezagutzeak.

Etorri ez denak astia du oraindik...

Gaur, 18:00etatik 20:00etara egongo naiz; eta zapatuan eta domekan, 12:00etatik 14:00etara. Herriar denak gonbidatzen ditut, hemen-txe izango naute zain.



ESKOLEN TXOKOA

30 urte elkarrekin ospatzen

Urriaren 3an, larunbata, ikastetxearen urteurrena ospatuko du Eskolabarrik

Eskolabarri Ikastetxea

Hogeita hamar urteko ibilbideak, ikaskuntzek, adiskidetasunek eta elkarrekin bizitako uneek ospakizun berezia merezi dute. Horregatik, gure ikastetxeak bere 30. urteurrena ospatuko du urriaren 3an, Ermuko plazan, komunitate osoari zuzendutako egun berezi batekin.

Egun osorako egitaraua presatuta da, adin eta gustu guztietarako proposamenez bete: musika, txaranga, puzgarriak, tailerrak, bazkaria, disko-festa eta beste hainbat sorpresa izango dira egunaren protagonista.

Ospakizunaren helburua ez da urteurrena ospatzea soilik, baizik eta ikastetxearen historia osatzen duen komunitate osoa elkartzea. Horregatik, ikasle ohiak, egungo eta iraganeko familiak, etorkizuneko ikasleak eta herriar guztiak gonbidatuta daude egun berezi hori guztiarekin ospatzera.

Hogeita hamar urteko ibilbidea ospatzeko, beraz, eguna barrez, musikaz, oroitzapenez eta istorio berriz betetzea da antolatzaileen asmoa. Izan ere, hogeita hamar urte ez dira egunero betetzen.

Urriaren 3an, Orbe plazan elkar ikusiko dugu!

Egitaraua

- **12:00** Topaketa eta talde-argazkia.
- **12:15-14:15** Irulitxa txarangaren kalejira.
- **12:15-14:15** Puzgarriak.
- **15:00** Bazkaria.
- **16:00-18:00** Puzgarriak.
- **17:00-19:00** Inguru Abenturaren tailerrak.
- **17:00-20:00** *Dantzatzeko prest* disko-festa.
- **20:00-21:30** Latuna Bando txarangaren kalejira.



Ikasleak, irakasleak eta gurasoak, 25. urteurrenako talde-argazkian, plazan.



Ikasle ugari danbor eta guzti atera ziren Irulitxa txarangarekin batera kalejiran.

Barrena[!]

BATZEN GAITUEN
DISTANTZIA

0
km



HEDABIDEKIN
ERE BAI

'Arkitektura' diskoa "zorutik" hasi du eraikitzen Izarok

Lan berriko lehen singlea argitaratu du mallabitarrak

Ander Gomez

Otsailean, *La Revuelta* telesail-lean iragarri zuen Izarok urte bukaeran lan berria kaleratuko zuela, *Arkitektura*; orain, diskoaren aurkezpen-kanta argitaratu du, *Zorua*, bideoklip eta guzti.

Kantuan, pop doinu alaiekin eta umore puntu batez, pausoz pauso azaltzen ditu egurrezko lurra konpontzeko eta mantentzeko egin beharreko lanak: lixatu, arrakalak bete, garbitu, bernizatu... Baina bere ibilbidean zehar argi utzi du zenbat maite duen hitz-jokoak egitea, eta oraingoan ere horri heldu dio, *zorua* berbaren esanahi bikoitzarekin jolastuz, lurraren eta eromenaren artean. Horrela, zerbait berria eraikitzerako orduan teitlatutik hasi beharrean daukaguna zaindu eta konpontzearen garrantziak mintzo da mallabitarra.

Oholtza gainean emango du 2027a

Urtarrilean, zuzenean aurkeztuko du *Arkitektura*, Irungo Ficoba pabiloian egingo den kontzertu berezi eta parte-hartzailearekin. Sarrera guztiak

agortuta daude dagoeneko, baina kontzertuz beteriko bira du aurretik, Euskal Herrian –Donostia, Donibane Lohizune, Iruñea, Bilbo–, Estatuan zehar –Madril, Granada, Vigo, Bartzelona, Gijon...– eta baita Europa-ko hiriburuetan ere –Dublin, Londres, Paris, Brusela–.



Zorua abestiaren bideoklipa ikusteko, eskaneatu QR kode hau.



Bideoa grabatzeko etxera bueltatu da: Berrizko Arroita jauregi baserrian grabatu du. IZAROK

Otxandiora joan da Frontenis Ligako txapela

A.G.

Irailan ekin zioten Bakarkako Frontenis Ligari, eta bi asteburu oso hartu zituen lehia bizitrik zortzi finalista atera ziren.

Domekan, Xabier Lezetak eta Urko Hernandezek jokatu zuten finaleko eguneko lehen norgehiagoka, eta aise gailendu zen Lezeta (22-13). Ondoren, tanto barreko aldearekin irabazi zuen

Rodriguezek, Bravoren aurka (21-22). Aldapek eta Gandiagak emaitza errepikatu zuten (21-22), Gandiagaren alde. Final-laurdenetako azken lehian bi tantom gailendu zen Elorriaga, Sanchezen aurka (22-20).

Finalerdietan, markagailuko aldea handitu bazen ere, maila mantendu zen. Lezetak eta Elorriagak lortu zuten finalerako

txartela, Rodriguez eta Gandiagari irabazita (18-12, 11-18).

Egunerokoan, Urkiolak banatzen ditu Xabier Lezeta otxandiarra eta Ander Elorriaga durangarra; finalean, Mallabiko eskolako frontisa baino ez zuten izan bien artean. Lezeta aukera aprobetxatu eta garbi nagusitu zen (16-11). Ligaren 16. aldiko txapela jantzi du.



Finalisten talde-argazkia, domekan, sari-banaketa ostean. AD MALLABIA FT



Arietzu Mendi Taldeko kideak, Arietzun, 1992an. JON URIBE

Arietzu Mendi Taldea omendu dute, eta gurutzean plaka berria jarri

A.G.

Mallabiko Mendizaleak taldeak bigarren irteera egin zuen zapatuan. Herri inguruan egingo duten mendi-irteera sortari hasiera emateko, Arietzuko tontorrera igotzea erabaki zuten, eta, horrekin batera, egun desagertuta dagoen Arietzu Mendi Taldeko kideak omendu zituzten.

1991n sortu zen talde hura, eta, urtera, izena maileguan hartu zioten tontorrera igo eta bertako gurutzera plaka bat lotu zuten, torloju. Honako hau irakur daiteke: *Gure lehen urteurrenean ospatzeko, bertan daukagun hiru haritz hauek sartu duguz; sinadurarekin eta mendiaren altuerarekin batera, 487 metro.*

Orain, talde haren sorreraren 35. urteurrenean, plaka berria itsatsi dute zaharraren gainean, *Eskerrik asko aitzindariak* dioena.



Plaka berria jartzen. MALLABIKO MENDIZALEAK

Bueltan dira Superigandek, berritasunekin

Ikasturte honetan, mendi-irteerak egiteko aprobetxatuko dituzte Superigande goizak. Mallabiko Mendizaleak ekimenaren baitan, familia osoarentzako ekintza izango da, eta lehen asteburu honetan Gereako ur-jauzietara joango dira. Tra-

baku Goikotik aterako dira, 10:00etan, eta 6,2 kilometroko ibilbide zirkularra egingo dute. Eguraldi txarra eginez gero, multikirola egingo dute eskolan, 11:00etan.

Arratsaldean, ohiko jolasak izango dituzte Kontzejuzarrean: bingoa, xakea, dominoa... eta, aurretik, 16:00etan, zinema egongo da, *Super Mario Galaxy* filmaren proiektioarekin.

OHARRA

Txakur bila

Irailaren 19an –zapatua– txakurra galdu zen Mallabia eta Ermua artean, Errekalde eta Mañe inguruan. Emea da eta *Lena* izenari erantzuten dio. Norbaitek ikusten badu 642 40 14 90 telefono zenbakira deitzeko eskatu dute.



Aurreikuspena da Gaztañerre azoka egunerako bukatzea Plaza Zaharreko obra

Besteak beste, miradorea eta ibai-ondoko egurrezko plataforma eraikiko dituzte

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Bukatzen ari dira azken hilabeteotan herrian egiten ari diren obra nagusiak.

Batetik, aste honetan zabaldu dute Baltegieta eta SAPA 22 arteko errepede tartea, hango konponketa lanak bukatu ondoren. Abuztuaren erdialdetik ibili dira lan horiek egiten; hain justu, galtzada-harriak birjartzeko lanak egin zituzten, eta martxoan bukatu. Baina leku batzuetan akatsak azaldu ondoren, konponketa-lanak egin behar izan dituzte.

Bestetik, urri hasieran bukatuko dituzte Txurrukeneko urbanizazio lanak. Espaloian ipinitako azken harlauzak sikatzeko laga dituzte; eta datozen egunotan, espaloian, etxe multzoaren erdialdean, oinezkoendako paso berria egokituko dute; errepedean, berriz, bidea margotuko dute, eta, seinaleak jarriko dituzte, eta, azkenik, jardinerak jarriko dituzte.

Uztailaren erdialdean hasi zituzten obrak. Hainbat jarduera egin dituzte: errepedea noranzko bakarrekiko ipini dute, aparkalekuak lekuz aldatzeko eta haien kopurua handitzeko egokitzapenak egin dituzte, zorua asfaltatu egin dute eta mendi-magalaren ondoko areka berreraiki egin dute, besteak beste. Lanak Asfaltados y Construcciones Morga SL enpresak egin ditu, 147.567,41 euroko aurrekontua esleitura -BEZa barne-.

Egurrezko egitura, miradorea...

Azkenik, Plaza Zaharrean harmaila berria eraikitzeke obrak azken txanpan sartu dira. Aste honetan, zorua pikatzen ibili dira eta, besteak beste, Txoko taberna aurreko petrila eta baranda kendu dituzte; esparru osoa bateratuta geratu da horrela. Bosark enpresako Borja Idiakez obra-zendariak emandako azalpenen arabera, galtzada-harri grisez estaliko dute harmaila aurreko plazako zorua. Hori egin aurretik, baina, ibai ondotik gora egingo dituzte falta diren lanak.

Batetik, ibai ondoan, harmailaren amaieran, 60-70 m²-ko egu-



Txoko aurreko petrila botatzen, eguaztenean. U.M.Z.



Txurrukenen noranzko bakarra ezarri dute. U.M.Z.



Aste honetan zabaldu dute Baltegieta eta SAPA 22 arteko errepede zatia. U.M.Z.

rezko egitura ipiniko dute. Bestetik, goiko aldean, Batzokiaren ondoan, 24 m² inguruko miradore bat eraikiko dute, baranda batez inguratuta. Miradoreak egurrezko zoladura izango du, eta altzairuz eta hormigoiz egin-

dako egitura. Eta, hirugarrenik, besteak beste, harmailaren eskaileraren ezker aldean baranda bat jarriko dute. Aurreikuspenen arabera, obra osoa Gaztañerre Azoka Egunerako bukatuko dute; azaroaren erdialderako, beraz.



Leonen izan zen erretiratu kuadrilla, Astorgan. LOURDES LIZARRALDE

Urrian, Gisatu Lehiaketa eta Lodosara txangoa, Itxaropenakoen eskutik

Debabarreneko ordezkari soraluzetarrak laugarren geratu dira Gipuzkoako Masail Lehiaketan, Arrasaten

U.M.Z. SORALUZE

Domekan joan eta martitzenean bueltatu ziren 51 herrikide Leondik. Hiru egun pasa dituzte, firin-farin, Itxaropena Erretiratu Elkarteak antolatutako bidaiatxoan. Leon, Riaño urtegia eta Astorga bisitatu dituzte, besteak beste. Euren esanetan, "oso ondo" ibili dira.

Masail Lehiaketan, laugarren

Herenegun, eguaztena, berriz, Gipuzkoa mailako Masail Lehiaketa jokatu zen Arrasaten, eta Itxaropenako Abel Olaizola eta Iñaki Iñarra soraluzetarrak lehiakide izan ziren. Debabarreneko ordezkari moduan joan zen bikotea, Soraluzeko Masail Lehiaketan txapelkun geratu ondoren. Gipuzkoako finalean, berriz, laugarren postuan geratu ziren. "Esperientzia polita" izan zela kontatu dute.

Gisatu Lehiaketa

Irailekoak eginda, dagoeneko urriko jarduerak antolatzen dabil herriko erretiratu elkarreko zuzendaritza taldea, buru-belarri.

Batetik, urriaren 14an, Lodosara eta Logroñora txangoa egingo dute: Peron Kontserbak eta Lodosa herria bisitatuko dituzte, gidarien laguntzarekin; gero, bertan bazkalduko dute eta arratsalde-pasa libre izango dute. 50 euro balio du txangoak, eta izen-ematea zabalik dago, urriaren 8ra arte.

Bestetik, urriaren amaiera aldera, ohiko Gisatu Lehiaketa eta ondorengo bazkaria egingo dituzte; zabalik dago izen-emate epea. Kasu horretan, eta momentuz, sukaldari izateko barrik. Zortzi bikotek parte hartu ohi dute Gisatu Lehiaketan sukaldari.

Urritik aurrera ordutegi berria izango dute Mendizabal okindegian

Urrian hasita, Mendizabal okindegiak ordutegi berria estreinatuko du. Goizez, orain arte moduan segituko du, astelehenetik bari-kura, 08:00etatik 13:00etara, eta zapatuetan, 08:30etik 13:30ak arte. Arratsaldean, berriz, astean hiritan zabalduko dute: astelehenetan, martitzenean eta eguenean, 17:00etatik 19:30era. Domeketan eta jaiegunetan itxita izango da.

Lurdes Txurruka Madinabeitia preso ohia hil da

Astelehenean, irailaren 21ean, Lurdes Txurruka Madinabeitia hil zen, Soraluzeko preso ohia, gaixotasun luze baten ondoren. Lurdes Txurrukak 21 urte eman zituen preso, E'Tako kide izatea leporatuta, besteak beste. 2015ean laga zuten libre -Huelvako kartzelan zegoen-. Martitzenean agur jendetsua egin zioten, tannatorioan.

Orain arteko jendetsuen dator Marraskilo Tour, 200 lagunek eman baitute izena online

Egunean bertan ere eman ahal da izena; beraz, gainditu egingo du 200eko kopurua

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Herenegun, eguaztena, itxi zuten aurtengo Marraskilo Tour mendi ibilaldirako izena emateko epea *Kirolprobak.com* atarian, eta antolatzaileek jarritako 200 laguneko mugara iritsi zen partaideen kopurua. Gainera, kontuan hartuta mendi ibilaldiaren egunean bertan ere eman daitekeela izena, pentsatzekoa da lagun gehiago animatuko direla urriaren 3ko hitzorduan parte hartzera.

Beraz, Marraskilo Tour mendi ibilaldia egin den hemezortzi edizioetako jendetsuena aurtengo izango dela aurreikusten da, eta horrek berretsiko luke hitzordu benetan preziatua dela soraluzetarren artean.

Denetariakoak

Mendi ibilaldiaren antolatzaileek ontzat eman dute online izen-ema-



Ume, gazte eta heldu kuadrilla, iazko Marraskilo Tourren. AMAGOIA OSTOLAZA

200

AURTEN, LEHEN ALDIZ,
200 PARTAIDE
BAINO GEHIAGO IZANGO DITU
MARRASKILO TOUR IBILALDIK

tea: "Aurten, 200 lekutara handitzea erabaki zen, eta bete egin da muga hori".

Kopuruaz aparte, askotarikoak da izena eman dutenen profila, umeak, gazteak, helduak zein beteranoak apuntatu baitira.

Gehienak soraluzetarrak dira, baina bisitariren bat zein beste ere animatuko da, urtero moduan.

Edozelan ere, antolatzaileek gogorarazi dute ibilaldiak hasi aurretik eman ahal izango dela izena bietan, egunean bertan, baina bazkaria ez dela barne egongo eta ibilaldiko kamisetaren neurria ez dela bermatuta egongo.

Abuztua ezker lanean

Osterantzean, antolatzaileek jakinarazi dute abuztuaren amaieran hasi zirela Marraskilo Tourren aurtengo hitzordua antolatzen, eta zazpi-zortzi lagun ari direla aurreprestaketa-lanak egiten. "Momentuz, bideak garbitzen ari gara; gero, bideen markatzea azkeneko egunetan egingo dugu, betiko moduan". Gaineratu dutenez, aurten garbiketekin lan gutxiago izaten ari dira, sikatearen eraginez. Halaber, jakinarazi dutenez, mendi ibilaldiaren egunean bertan, langile kopurua bikoiztu eta hamabost bat lagun ibiliko dira lanean, azken orduko izen-emateak hartzen, anoa-puntuetan arreta ematen eta beste-lako lanak egiten.

Itxiturak eta zaborrak

Bestalde, egunari begira bi ohartarazpen egin nahi dizkiete parte-hartzaileei.

Batetik, mendiko ganaduarekin lotuta, gogorarazi nahi diete itxiturak itxita laga behar dituztela. "Ganaduak ihes egin izan du, eta kontu horrekin kontuz ibili behar da", esan dute.

Bestetik, eskatu nahi diete mendian zakarrik ez botatzeko. Diote anoa-guneetan egongo dela zakarra botatzeko aukera, eta, bestela, norberak herrira jaitsi behar duela.

Aurten, Marraskilo Tourrek XVIII. aldia izango du. Ohikoa den moduan, bi ibilbide izango ditu aukeran: luzea eta motza. Luzeak 35 kilometro izango ditu, eta 1.800 metroko desnibela. Ibilbide luzeko mendizaleak 06:00etan abiatuko dira, Plaza Barritik. Ibilbide laburrak, berriz, 20 kilometro izango ditu, eta 1.000 metroko desnibela. Bigarren horretako mendizaleak 08:00etan abiatuko dira, Plaza Berritik. Iaz, hain zuzen ere, 140 lagunek egin zuten ibilbide motza eta 45 lagunek, berriz, luzea.

Asteburu honetan hasiko dute liga Sorako talde guztiek, etxetik kanpo

U.M.Z. SORALUZE

Asteburu honetan, liga beteko martxa hartuko dute Soraluze Futbol Taldean. Izan ere, Erregionaleko eta Gorengo mailako gazteek eta kadeteek joan den asteburuan hasi zuten 2026-2027ko liga txapelketa –galdu egin zuten nagusienek; irabazi, berriz, kadeteek–; eta Soraluze Futbol Taldeko gainontzeko tal-

deek asteburu honetan jokatuko dituzte ligako lehen partiduak.

Urriaren 12ra arte

Hori bai, etxetik kanpo segitu beharko dute entrenatzen zein jokatzeko. Soraluze Futbol Taldeko zuzendaritzak esandakoaren arabera, berritua ere atzeratu, eta urriaren 12a da futbol zelaiko lanak bukatzeko emandako data berria.

Hori horrela, asteburu honetan, etxeko lau partiduak herritik kanpo jokatuko dituzte, lagatxo zelaietan. Bergarako Ipintzan jokatuko dituzte hiru partidu: Erregionalekoek, zapatuan, 16:30ean; eta, domekan, berriz, Gorengo mailako kadeteek 09:00etan eta gazteek 18:15ean. Infantil A taldeak, berriz, Antzuolan jokatu du etxeko partidua, zapatuan, 10:00etan. Azkenik, lehen mailako gazteek eta infantil Bk Eibarko Unben dituzte hitzorduak, eta lehen mailako kadeteek, Mutrikun.



Gorengo mailako kadeteak, pozik, ligako lehen partidua irabazi ondoren, Seguran. U.M.Z.

MENDIZABAL
okindegia
Ogi - Prentsa - Gostariak

Asteheneretik ostegunera:
08:00 - 13:00
17:00 - 19:30

Ostiralak
08:00 - 13:00
Larunbatak
08:30 - 13:30

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 89

IXOTU
BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

BERGARA - 943 044 728

Batzoki
Asteburuetako menua,
plater konbinatuak...

Plaza Zaharra
(Soraluze)

Erreserbak:
638 91 15 97

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Tel. 943 75 25 67

MGS
Seguros

Veronica Gallarraga
Gertuko eta seguru

Asteheneretik ostiralea:
20:00 - 23:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 11
Tel. 665 744 055

Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgerak,
ogitarikuak,
raboak,
pirxak,
gostaria...

Entseguak egiten dira

Tel. 943 75 17 09

EXGA S.L.

Elektrizitatea
Iturgintza
Igeltseritza
Pintura

679 623 584
Soraluze

Barrena
DEBARRERNEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENA astekarian

edo
www.barrena.eus
webgunean

943 743 704
688 769 657

Bihar, zapatua, ipuinek hartuko dute Soraluze, Munduko Ipuinen Egunaren eskutik

Hirugarren edizioa izango du topaketak, eta egun osoko egitarau betea antolatu dute

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Berritasunekin dator bihar, zapatua, ospatuko den Munduko Ipuinen Egunaren III. edizioa, hasiera eta bukaera bereziekin. Topaketari hasiera emateko, txotxongilo tailerra izango da. Bukaera emateko, berriz, helduentzako ipuin-kontaketa musikatu egingo dute.

Txotxongilo tailerrari dagokionez, TOPIC Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentro entzutsuak emango du, *Bokoien munduan barna* izenburua du eta 5 urtetik gorako neska-mutikoei parte hartu ahal izango dute, heldu batek lagunduta. Doakoa izango da, 11:00etan, gaztelekuan.

Tailerra hasteaz bat, Plaza Barrixan bere txokoa jarriko du Udal Liburutegiak, 11:00etatik 14:00etara bitartean, mun-



Roanna Larsen ipuin kontalaria. SORALUZKO UDALA

duko hainbat txokotako istorioak denen eskura jartzeko.

Hiru kontakizun

Osterantzean, eta ipuin kontakizunen harira, "mugaz gaindi eramango dute ipuinek entzulea, gertuko zein urruneko txokotara", esan dute antolatzaileek; halaber, adin guztietarako proposak direla ere azpimarratu dute.

Hiru hitzordu egin dituzte. Alde batetik, "Japoniako ipuinak ekarriko ditu Ines Bengoak, antzinako eta gaur egungo istorioak. Kontalariak egurrezko kutxatxo baten barruan sartzen diren irudiez lagunduta josiko du narrazioa". Ikusi, entzun eta parte hartzeko emanaldia izango dela iragarri dute. 13:00etan da hitzordua, eliz atarian.

Bestetik, "Gales lurraldeko kondaira zaharrak kontatuko ditu Roanna Larsenek. Heren-sugeak, lakuak, mendiak, fantasiatzko izakiak eta pertsonaia bereziak izango dira protagonistak. Istorioak ingelesez eta euskaraz kontatuko ditu, eta kantuan jarriko ditu entzuleak". Bigarren hitzordu hori 18:00etan hasiko da; hori ere, eliz atarian.

Eta hirugarrenik, helduentzako ipuin-kontaketa izango da. Hitzorduari giro intimoa eman nahi izan diote, eta kaperan egin dute hitzordua, 19:30ean. Han, Ongi Etorri tabernan eta bertan entzuten diren istorioetan murgilduko dira entzuleak, Ameli protagonistaren eskutik, eta musikaz inguratuta.

Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartek, Udaleko Kultura batzordeak eta Udal Liburutegiak elkarlanean antolatu dute Munduko Ipuinen Eguna. Esprikatu dutenez, oro har, Soraluzen dagoen "hizkuntza aniztasunari aitortza" egin nahi diote ipuinen bitartez ere; halaber, "herriarren zein hizkuntza komunitateen arteko hartu-emanak ahalbidez bultzatu eta ipuinen balioa" ere sustatu nahi dute.

Bertso afaria urriaren 16an Iturriaga eta Elortzarekin



Unai Iturriaga eta Igor Elortza. 'ANBOTO'

Urriaren 16an, Soraluzeko BertSora bertso eskolak antolatuta, bertso afaria egingo dute Lagun maitea elkartean, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariekin.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, menuak lau plater izango ditu: sarrerakoak, entsalada, haragi gisatua eta postrea. Gainera, hala nahi duenak haragirik gabeko menua ere eskatu ahal du txartela erosterakoan.

Afaritarako txartelak dagoneko salgai daude, Iratxo gozodendan, 30 euroko prezioan, eta bertan izango dira urriaren 12ra bitarte –astelehena–.

Mesedeetako Jai Batzordeak jaien eta partaidetzaren oso balorazio positiboa egin du

Dagoneko esan dute "gogotsu bueltatuko" direla datorren urteko "festa herrikoia" antolatzeraz

U.M.Z. SORALUZE

Ezustekorik gabe, eguraldia lagun eta partaidetza esanguratsuekin ospatu dira Mesedeetako jaiak Errekalde auzoan. Barikutik domekarako egitaraua prestatu zuten, eta barikuko txupinazorako beteta zegoen auzoa. Antolatzaileek ontzat eman dute jaiak emandakoa, eta eskerrak eman dizkiete jaietan parte hartu dutenei zein berritarren bidez. Bide batez, errifan zenbaki irabazleen berri ere eman dute: lehena, 3.675 (1.607), eta bigarrena, 762 (3.101).

Datorren urtean, berriro

Hona hemen Jai Batzordearen idatzia: "Ezin hobeto joan zaizkigu aurtengo Mesedeetako jaiak. Giro goxoak lagunduta, adin des-

berdinetako pertsonak elkartu dira plazan, haur, gazte, heldu... Giro atsegina izan dugu antolatutako ekintza desberdinetan, eta, oro har, jendearen parte-hartze zabala ezin dugu ukatu. Baina hau guztia ez zen posible izango Jai Batzorderik ez bagenu, eta, are gutxiago herritarren aldetik parte hartzerik ez bagenu. Beraz, Mesedeetako jaietara hurbildu zareten guztioi eskerririk asko, bihotz-bihotzez. Plazer bat izan da herriarentzat lan egitea eta herria parte hartzen ikustea. Nekeak jota, baina berriz ere indarberritzean, berriz ere gogotsu bueltatuko gara hurrengo urteko festa herrikoia antolatzen. Azkenik, eskerrak eman Udalari, Soraluzeko komertzio eta tabernei, eta, nola ez, herritar guztiori".



Jendetsua izan zen zapatuko bazkaria, bisitariak ere erakarri zituen. U.M.Z.



Kontzertuaz gozatzen. U.M.Z.



Umea pozik zezen mekanikoan. U.M.Z.



Ozeizia eta Olaondo erraldoiak, konpartsa, txistulariak eta dultzaineroak, domekan. E. UNAMUNO



Trikitilariek girotuko dute, aurtan ere, bazkalostea. Irudian, jendetza, iaz, pilotalekuan. NEREA BEDIAUNETA ALKORTA

Festa giroan murgilduko da Deba asteburuan, Euskal Jaia ospatzeko

Bihar, irailak 26, izango da egun handia, baina gaur abiatuko dute egitaraua

Izaro Aulestiarte

Hutsik egin gabe, iraileko azken larunbatean ospatuko dute Euskal Jaia Deban. Ohiko osagaiak eta egitaraua izango ditu jaiak, eta ez dira faltako urtez urte ospakizuna berezi egiten duten musika eta dantza ekitaldiak, ezta herri bazkari jendetsua ere; beritasunik ere izango da, baina, aurtan. Asteartean zabaldu zuten Udalak eta herriko hainbat eragilek ondutako programazioa, eta baserritar jantzita joateko eskaeraren oharra ere txertatu dute kartelean.

Festa giroa gaur, hilak 25, hasiko da; egun handiaren bezperan, hain zuzen. Azken urteotan bezalaxe, Kanean Kantuz-ek kantaldia egingo du herriguneko kaleetan, 19:30ean hasita.

Biharamunerako, berriz, goizetik gauera arteko ekintza sorta prestatu dute. Hasteko, goizean goiz, Segurako taloen postua jarriko dute Plaza Zaharrean. Eta, 10:00etarako, Zuhatzako-Kolore Anitz Aisialdi Taldeak zumardian jarrita du hitzordua, pintxo lehiaketa antolatu baitu, estreinakoz, HH5 eta LH6 bitar-

teko haurrei zuzenduta –HH5 eta LH 1-2 mailetako ikasleek helduren baten laguntzarekin parte hartuko dute–. 6-8 laguneko taldeak izango dira lehian; bospasei talde bai, gutxienez. Lehiaketa hasi eta ordubetera,

Beritasun gisa, haurrentzako pintxo lehiaketa eta mural margotzea antolatu ditu Kolore Anitzek

11:00 aldera, Haur Hezkuntzako ikasleei zuzendutako mural margotzea egingo dute.

Ordu bertsuan, Kalez Kale taldeko txistulariak irtengo dira kalejiran; 11:30ean, Zubietako joaldunen txanda izango da: eta eguerdian, Gure Kai taldeko eta Musika Eskolako dantzariak hartuko dute kalea. 13:30ean hasita, berriz, trikitilariek girotuko dute herrigunea.

Herri bazkaria pilotalekuan

Aldats pilotalekura lekualdatuko da festa giroa bazkalorduan, ohiturari eutsiz, herri bazkaria antolatu baitu Zuhatzak, 15:00etarako. 600 lagunentzako tokia egongo da otorduan, eta nork bere janaria eraman dezake; bazkaltiar askok, baina, euskara elkarteak kideek prestatuko duten paella-jana dastatuko dute aurtan ere –ordu gutxian saldu zituzten txartel guztiak; 350, guztira–. Laja eta Lutxurdio trikitilariek alaituko dute bazkalostea, 19:00etara arte.

Antolaketa lanetan aritzeko boluntarioak beharko dituztela gogorarazi dute, beste behin ere, antolatzaileek. Laguntzeko prest daudenek 613 92 01 73 telefonora deitu edo idatzi dezakete.

Arratsaldean, buruhandiak ibiliko dira kalez kale, 18:00etan hasita, eta Debrass Band-en kalejira 19:00etan hasiko da. Ahantzi taldearen erromeriak itxiko du egitaraua, 23:00etan, Foruen plazan.

Egitaraua:

Irailak 25, ostirala

- **19:30** Kanean Kantuz, kalez kale.

Irailak 26, larunbata

- **Goizean** Segurako taloak, Plaza Zaharrean.
- **10:00** Pintxo lehiaketa –HH5 eta LH6 bitarteko haurrei zuzenduta– eta mural margotzea –HHko ikasleentzat–, Kolore Anitzen ekimenez, zumardiko kioskoan.
- **11:00** Kalez Kale txistulariak, herrian zehar.
- **11:30** Zubietako joaldunak, herrian zehar.
- **12:00** Gure Kai dantza taldeko eta Musika Eskolako dantzariak, kalez kale.
- **13:30** Trikitilariak, herrian zehar.
- **15:00** Herri bazkaria, Aldats pilotalekuan. Laja eta Lutxurdio trikitilariek bazkalostea girotuko dute.
- **18:00** Buruhandiak, kalez kale.
- **19:00** Debrass Band, kalez kale.
- **23:00** Erromeria Ahantzi taldearekin, Foruen plazan.

Zabalik da eskulan eta zaharberritze ikastaroan izena emateko epea

Nieves Maidaganek gidatuko du ikastaroa; urrian hasi eta maiatzean amaituko dituzte eskolak, Kultur Elkarteak

I.A.

Beste urte batez, Debako Kultur Elkarteak eskulan eta zaharberritze ikastaroa iragarri du ikasturte berrirako, eta izen-ematea zabalik dago jadanik. Urrik maiatzera bitartean egingo dituzte saioak, astelehenetan edo asteazkenetan, 17:00etatik 19:30era, eta Nieves Maidagan artisaua arituko da irakasle lanetan.

Ikastaroan parte hartzeko beharrezkoa da aurretik izena ematea, eta matrikula egiteak 175 euro balio du; 15 euro merkeagoa Kultur Elkarteak bazkideentzat.

Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko, 615 76 43 37 telefonora deitu behar da.

Margo ikastaroa, helduentzat

Bestalde, Kultur Elkarteak bertan 16 urtetik gorakoei zuzendutako margo ikastaroa izango da aukeran datozen hilabeteotan, Haitz Haundi elkarte artistikoa-ren ekimenez.

Urriaren 1ean hasi eta maiatzaren 27an amaituko dituzte margo eskolak; astearteetarako eta ostegunetarako jarri dituzte hitzorduak, 19:00etatik 21:00eta-



Altzariak zaharberritzen, iaz. LAGATAKOA

ra. Izena eman nahi dutenek ikasturtea hasten den egunean bertan, hilaren 1ean, egin ahal izango dute matrikula; prezioa 170 euro da elkarte artistikoko bazkideentzat, eta 200 euro, bazkide ez direnentzat.

Sei umorista ariko dira gaurko 'Barretegia' saioan, Kultur Elkarteak

I.A.

Barretegia umorezko bakarriketara saioa hartuko du gaur iluntzean, hilak 25, Kultur Elkarteak. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta sei bakarriketari ariko dira oholta gainean, *stand-up* probalekuan: Iker Iribarren, Joana Arakistain, Lander Varona, Manex Astigarraga, Esti Curiel eta Xabier Arraztoa.

Ikuskizunerako sarrerak Internet bidez eros daitezke, bost euroan, labur.eus/barretegiadeba12 estekan, eta, sarrera guztiak aurrez agortzen ez badira, emaldia hasi aurretik ere izango dira salgai, aretoan bertan.

Kultur Elkarteak orain bi urte, 2024an, ekin zion euskarazko

umorea sustatzeko saioen dinamizari eta bide beretik jarraitzeko asmoa du. Hamabigarren probalekua izango da gaurkoa.



Manex Astigarraga, aurreko saio batean. I.A.



Debako Udaleko, Altxa Buruako eta herriko beste hainbat taldetako kideak, dekalogoaren aurkezpenean. DEBAKO UDALA

Haurren eta gazteen ongizate digitala sustatzeko dekalogoia osatu dute

Kirol, kultur eta aisialdi eremuetan jarraitu beharreko irizpideak adostu dituzte

Izaro Aulestiarte

Haurren eta gazteen ongizate digitalaren aldeko ekimen bateratua aurkeztu dute Altxa Burua Deba-Itziar taldeak eta Debako Udalak. Herriko kirol, kultur eta aisialdi taldeei zuzendutako dekalogoia osatu dute, pantailen erabilera arduratsua sustatzeko eta haur, nerabe eta gazteentzako ingurune seguruak eta osasungarriak sortzeko helburuarekin. Eta, zehaztu dutenez, bertan jasotako irizpideak eta neurriak ikasturte berrian aplikatuko dituzte ekimenera batu diren elkarteek.

Bada, maiatzean eta ekainean herriko hainbat eragilerek ere egindako lanketa prozesuaren emaitza da dekalogoia; kirol, kultur eta aisialdi taldeek ez ezik, Mogel eta Luzaro guraso elkarteek ere parte hartu zuten, besteak beste, Telmo Lazkano adituak gidatutako saio praktikoetan. Bertan, elkarrekin hausnartzeko tarte hartu eta adingabeekin komunikazioa eta digitalizazioa zentzuz eta modu praktikoan lantzeko irizpide bateratuak adostu zituzten, eta horiekin osatu dute orain, hain justu, dekalogoia.

Neurri praktiko eta zehatzak jaso dituzte bertan: aldageletan gailu adimendunen erabilera saihestea; kirol taldeetako arduradunen eta 16 urtez azpiko kirolarien arteko harreman egokia zaintzea –adingabeak sare sozial letako kontu pribatueta ez gehituz edo onartuz, adibidez–; aurrez aurreko komunikazioa lehenetsia eta adingabeekin komunikatzeko familiek edo tutoreek parte hartzen duten zabalkunde-kanalak erabiltzea; eta deskonexio digitala sustatzea –21:00etatik aurrera mezurik ez bidaltzea, beharrezkoak edo premiazkoak diren egoeretan izan ezik–.

Nabarmendu dutenez, dekalogoia ez da araudi zurrin bat; jarrera aldaketa praktikoak proposatzen ditu, "arrisku egoerak prebenitu, haur eta nerabeen eskubideak babestu eta jarduerak ingurune seguru eta osa-

lungarri batean garatzen direla bermatzeko helburuarekin".

Hamabi talde, momentuz

Ekimenarekin bat egin duten elkarteak ikasturte honetan hasiko dira irizpide horiek eguneroko jardueretan aplikatzen. Aldi berean, neurriak ezagutarazi eta gogorarazteko, informazio-kartelak jarriko dituzte kirolguneetan, hala nola harmailetan eta aldageletan. Eta, bide batez, elkarteek dekalogoaren edukia jasotzen duen gutun informatiboa helaraziko diete familiei, gomendioak eta neurriak betetzen laguntzeko haien lankidetzak eskatzeko.

Gaur-gaurkoz, hamabi taldek hartu dute pantailen adingabeengan sortzen dituzten kalteak murrizteko eta pantailen erabilera osasuntsua sustatzeko konpromisoa: Zubi eta Mogel guraso elkarteak, Gaztelekua, Ikigai, Errege Magoen desfilearen antolatzaileak, Debasket, Amaiak Bat, Tennis Luaran, Kulunka, Zurrumbilo, Yako eta Ipar. Gogorarazi dute, dena den, nahi duten guztiak batu daitezkeela ekimenara, altxaburuadebaitziar@gmail.com helbidera idatzita.

Uda aurretik egindako lanketa prozesuan adostu zituzten neurriak jaso dituzte



Lanak hiru bat astean amaitzea aurreikusten dute. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Asteon hasi dituzte Anes Arrinda pasealekua hobetzeko lanak

I.A.

Eusko Jaurlaritzak asteartean –hilak 22– hasi ditu Anes Arrinda pasealekuaren eskuinaldeko galtzada-harrizko zoladura konpontzeko lanak. Debako Udalak adierazi du jarduketak hiru aste inguru iraungo duela, eta pasealekuko zenbait puntutan egingo dituztela lanak, zoruan dauden irregulartasunak konpontzeko helburuarekin.

Kalteak, nagusiki, kaiko betelanaren asentamenduak eta lorategien inguruko landarediaren sustraien hazkundeak eragin dituzte; deformazio horiek desnibelak sortzen dituzte zoladuran, eta ingurutik igarotzen diren herritarren estropezu egiteko

eta erortzeko arriskua areagotu egiten da.

Lanak dirauten bitartean, kalteetako guneetako galtzada-harriak kendu, zoladuraren oinarria saneatu, eta zahorra eta harea geruza berriak jarriko dituzte, ondoren galtzada-harria berriz ere jartzeko. Era berean, beharrezkoa izango da hiri-altzari batzuk aldi baterako kentzea, eta lanak amaitutakoan berriro jarriko dituzte.

Datozen asteotan, beharrezko makineria eta materiala lan-eremura sartu ahal izateko, behar-ginek hondartzako pasealekua edo gertuko zubia erabili ahal izango dutela jakinarazi dio Eusko Jaurlaritzak Udalari.

LGTBIAQ+ programazioa abiatu du Udalak, aniztasuna ikusarazteko

I.A.

"Sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko sentsibilizazioa bultzatzeko, errealitate ezberdinak ikusgarri egiteko eta herri inklusiboago baten alde lanean jarraitzeko" konpromisoa berretsita, LGTBIAQ+ programazioa aurkeztu du Debako Udalak. Hiru jardueraz osatutako egitaraua ondu du; joan den igandean eman zioten hasiera, *La misteriosa mirada del flamenco* dokumentalaren proiektioarekin eta ondorengo solasaldiarekin, eta urrirako iragarri dituzte gaitz nontzeko bi ekitaldiak.

Lehenengo hamabostaldian, urriaren 1etik 15era bitartean, *Ni naiz naizena* argazki erakus-

keta izango da ikusgai, erakus-keta gelan, Gehitu elkartearen eskutik. Hilaren 25ean, berriz, haurrei zuzendutako *Izena duen guztia* antzezlanaren aurkeztuko dute, Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:30ean.

Parte hartzeko deia

Udalak azpimarratu du aniztasunaren aldeko lana ez dela mugatu behar data zehatzetara, eguneroko jardunean erakutsi edo landu beharrene konpromisoa delu sinetsita. Hala, LGTBIAQ+ errealitateak ezagutarazi eta berdintasuna eta errespetua sustatzeko helburuarekin antolatutako ekintzetan parte hartzeko dei egin die herritarrei.

Ikusmina piztu du San Sebastian Circuit Spirit rallyak Deban egindako geraldia

Izaro Aulestiarte

Aurreikuspenak bete, eta irudi bitxiak edota ezohikoak utzi zituen San Sebastian Circuit Spirit ekimenak joan den larunbatean Deban egin zuen geldialdiak. Eguraldia lagun, aurreikusitako orduan, 13:30 aldera, iritsi ziren rallyko par-

taideak herrigunera, eta motor hotsek azkar batean bereganatu zuten bertokoen nahiz bisitarien arreta. 16:00ak arte, 120 auto klasiko, kirol auto eta GT auto moderno egon ziren apartakuta Foruen plazan, zumardian nahiz Arrantzale kalean, zaleen gozamenerako.

Aurten, IX. edizioan, Gipuzkoan barrena egin du 140 kilometroko ibilbide osoa rallyak. Donostia izan du abiapuntu eta helmuga; goizean egin zuten Donostiatik Debarainoko tartea, Aldats pilotalekuan egin zuten herri bazkaria, eta bazkalostean abiatu ziren hiribururantz.



Auto klasikoak izan ziren protagonista Foruen plazan. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA



Ikusleak autoei begira, zumardian. N.B.A.

80 mendizaletik gora Burdin Kurutzek ikasleentzako antolatutako mendi irteeran

Txangoan izan zuten parte-hartze handia eta "giro ederra" nabarmendu dute

I.A. DEBA/ITZIAR

Debako Burdin Kurutz Mendi Taldeak joan den igandean eman zien hasiera ikasleekin hilero egin ohi dituen mendi irteerei, eta deialdiak arrakasta izan zuen, 80 lagunetik gora animatu baitziren Elorriaga-Itziar-Deba ibilbidea egitera. "Guztira, 83 parte-hartzaile batu ginen. Tartean ziren ikasleak eta haien gurasoak, beti bezala, baina bereziki pozgarria da ikasle berri ugari ikusi izana, Lehen Hezkuntzako lehen mailakoak asko, 6-7 urtekoak", nabarmendu du Joxe Mari Altxibarrek, mendi taldeko kideak.

Irteeran izan zuten eguraldi ona eta "giro ederra" azpimarratu dute antolatzaileek. Goiz-pasa egin zuten partaideek; 09:30 aldera abiatu eta 13:00etarako ziren bueltan. Eta, zehaztu dutenez, ibilbidea ez zuten ohiko

bidetik egin: "Jende gutxik eza gutzen dituen tokietan ibili ginen; Sorazu txikitik eta Maruko errekatik igarota, adibidez. Sasoi batean, Errotaberritik Itziarre-ra joateko Maruko erreka zubi albotik igarotzen ziren

auzotarrak. Oso paraje ederrak dira, oso hezeak, eta begetazio handikoak".

Ikasleei zuzendutako hurrengo txangoa urriaren 25erako iragarri dute; San Pedro-Kalamua-Arrate ingurura joko dute mendizaleek.



Ibaldian parte hartu zuten mendizaleak, San Roke ermitan. BURDIN KURUTZ MENDI TALDEA

Urrian jarriko dituzte martxan irakurketa taldeak Itziarren

Alaine Agirre idazleak gidatuko ditu haurren eta helduen saioak; hilaren 6rako jarrita daude lehen hitzorduak

I.A. ITZIAR

Ekimenak iaz izan zuen harrera ona ikusita, ikasturte honetan ere irakurketa taldeen dinamikari eutsiko diote Itziarren, Auzo Udaren ekimenez. Urritik ekainera arte egingo dituzte irakurzaletasuna sustatzeko saioak, Burugorri Gainean, hilean behin.

Bi talde osatuko dituzte oraingoan ere, partaideen adinaren arabera; haurrei eta gaztetxoei zuzendutakoa bata -7-12 urte bitartekoentzat- eta helduena bestea -16 urtetik gorakoentzat-. Iazko irakurleek taldeetan parte hartzen jarraituko dute, baina izen-ematea irekita dago nahi duen ororentzat, eta, saioak doakoak izango diren arren, antolatzaileek aipatu dute komenigarria dela izena aurrez ematea. Interesa dutenek Itziar-ko harrera bulegoan egin dezakete izen-ematea, 943 19 92 55

telefono zenbakira deituta edo apuntatu@itziar.eus helbidera mezu bat bidalita. Saio bakarre-ra edo guztietara joateko aukera eskaintzen dute, baina norberak arduratu beharko du hitzorduetan landuko duten liburua edo irakurgaia lortzeaz.

Alaine Agirre Garmendia (Bermeo, 1990) idazleak gidatuko ditu saioak. Irakurleak astearreetan bilduko dira: 7-12 urte bitarteko partaideak 17:30etik 18:30era arte ariko dira eta helduen taldea, 19:00etatik 20:30era.

Bederatzi saio

Dagoeneko iragarri dute egutegia, bederatzi saioz osatua, baita irakurgaien zerrenda ere. Urriaren 6rako egin dute lehen deialdia: Uxue Alberdiren *Ezindut eta zer?* landuko dute irakurle gazteek; Delphine de Vigan-en *Eske onak*, aldiz, helduek.

Idoia Nogales debarrak irabazi du 23. Berrobira krosa

I.A. DEBA

Idoia Nogales Alberdi (Deba, 1983) nagusitu zen joan den larunbatean, hilak 19, Berrobin jokotutako Berrobira krosean. Guztira, 70 bat korrikalari lehiatu ziren lasterketaren 23. edizioan, eta Mintxeta Atletismo Taldeko ordezkaria izan zen azkarrena emakumezkoen artean; 27 minutu eta 58 segundoan osatu

zuten 7,5 kilometroko ibilbidea. Maier Ezeiza bigarren izan zen (30.12) eta podiuma Sara Larreak osatu zuen (30.20).

Gizonezkoetan, Adrian Pajares Dominguez lazkaotarra nagusitu zen, 24 minutu eta 3 segundoko denbora eginda. Iker Ezeiza sailkatu zen bigarren (24.22) eta Mattin Intxaurren, berri, hirugarren (24.29).



Idoia Nogales, Berrobira krosean. ATARIA

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa daukat, eta nire herrialdeko erizain titulua. Paperak legez ditut. Esperientzia. 643 50 56 62

Elgoibar. Zaintza zein garbiketa lanak egiteko prest nago. Beste edozein lan ere hartuko nuke. 602 15 26 85

Elgoibar. Adinekoak zaintzen lan egiteko prest: asteburuetan, gaueetan, etxeko langile moduan, ospitalean... 631 42 56 86

Elgoibar. Adinekoak zaintzen lan egiteko prest nago. Urteetako esperientzia. Asteburuetan, gaueetan nahiz etxeko langile moduan aritzeko prest nago. 641 69 23 66

Elgoibar. Zerbitzari lan egiteko prest. Esperientzia handia. 652 33 31 06

Elgoibar. Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, orduka. Urteetako esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. 642 57 89 43

Elgoibar. Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Urteetako esperientzia daukat. Goizez zein arratsaldean lan egiteko prest. Euskalduna naiz eta titulu soziosanitarioa daukat. 660 511 781 / 943 74 23 30

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06

Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



SORALUZE
Peru

Zorionak, Peru! Muxu pila, familia osoaren partetik, eta segi olatuak hartzen! Maite zaitugu.



SORALUZE
Maren

Zorionak eta muxu handi bat, etxekoen partez!



MENDARO
Maitane

Zorionak, Maitane, bihar urteguna izango duzulako. Ondo-ondo ospatu, lagunak eta etxekoen partez.



SORALUZE
Ander

Zorionak, Ander! Jarraitu zure musikarekin bizipoza zabaltzen.



MENDARO
Milene

Zorionak, Milene, irailaren 26an 5 urte beteko dituzulako. Egun zoragarria pasa familiakoekin. Muxu potolo bat.



ELGOIBAR
Garazi

Zorionak, Garazi! Astelehenean, 11 urte! Oso ondo ospatu zure eguna! Patxo handi bat, etxekoen partez.



ERMUA
Amaiur

Zorionak, Amaiurtxo, zure lehen urtebetetzean! Segi beti bezain bihurri eta irribarretsu, gu guztion egunak koloreztatuz! Patxo handi bat, Oinatz, aitatxo eta amaxoren partez. Pila maite zaitugu!



ERMUA
Ainere

Zorionak, Ainere! Dagoeneko 13 urte! Segi orain bezain jator eta ez galdu irribarre hori. Patxo potolo bat, familia osoaren partez. Ondo pasa.



ELGOIBAR
Inar

Zapatuan, 8 urte, Inar! Ospatzeko gogoz gaude! Zorionak, etxeko guztion partez.

Zorion-agurra jartzeko bideak

- 'Barrena.eus'-en erabiltzailea sortu eta barrena.eus/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali Whatsappez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz zorionagurrak@barrena.eus. Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
- Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

sailkatuak@barrena.eus

www.barrena.eus/sailkatuak

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.



Zorion agurrek saria dute
Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean
Galle-Tiak Fabrik-eko
produktu pertsonalizatuak
zozkatuko dira astero!

Aste honetako irabazlea: **INAR MENDIBIL TELLERIA**



Eskatu zure tarta pertsonalizatua!

SORALUZE

Lurdes Txurruka Madinabeitia

— Agur eta ohore —

2026ko irailaren 21ean hil zen, 65 urte zituela.

Eskerrik asko momentu zail hauetan maitasuna eta babesa adierazi diguzuen guztioi.

Sendia

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - barrena@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 74 13 27 (24 orduz)

635 75 62 95 - 629 63 52 03

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Norbanakoei eta konpainiei
zuzenduriko zerbitzuak.

Erietxe zentroetan zerbitzuak.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / barrena@barrena.eus

OSTIRALA 25

- **SORALUZE** Odol emaileen hitzordua Itxaropenan, 16:30ean.
- **SORALUZE** Gazte Topagune Sozialistaren aurkezpena Gaztetxean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR** Isiltasunaren Eskolaren aurkezpena Musika Eskolan, 18:00etan.
- **DEBA** Euskal presoan eta iheslarien giza eskubideen aldeko

- mobilizazioa** Foruen plazan, 19:30ean.
- **SORALUZE** Euskal presoan eta iheslarien giza eskubideen aldeko **mobilizazioa** Plaza Barrixan, 19:30ean.
- **DEBA** Kaele Kantuz taldearen kantaldia Euskal Jaiaren egitarauaren baitan antolatutako ekitaldia. Herriko gune ezberdinetan, 19:30ean.
- **ELGOIBAR** Kontzertua: **Maren** Sarrerak, agortuta. Makina-erremintaren Museoa, 20:00etan.



ERMUA Antzerkia: 'Mejor no decirlo'

OSTIRALA 25: Maria Barrancok eta Imanol Ariasek bizitza osoa elkarrekin daraman bikote baten istorioa kontatuko digute. Hainbeste urte elkarrekin egoteko sekretua? Noiz isildu jakitea. Baina zer gertatzen da lege hori haustean eta lehenengo aldiz dena aurpegira esatean? Orduan hasiko da benetako komedia: egia gurutzatuak, egunerokotasunaren kaosa eta ustekabeko barreak. Claudio Tolcachirrek zuzenduriko *Mejor no decirlo*-k bikotearen intimitatea ispilu bihurtzen du, umorearen eta egia gordinaren arteko balantzan. Iraupena: 80 minutu. Sarrera: 15 euro. Egilea: Salome Lelouch. Zuzendaria: Claudio Tolcachir. Antzezleak: Imanol Arias eta Maria Barranco.



DEBA Barretegia

OSTIRALA 25: *Barretegia stand-up comedy* probalekua. Bakarrizketariak: Xabier Arraztoa, Iker Iribarren, Lander Varona, Joana Arakistain, Manex Astigarraga eta Esti Curiel. Sarrerak salgai, 5 euroan, labur.eus/barretegiadeba 12 estekan. Kultur Elkarteak, 20:00etan.

LARUNBATA 26

- **ELGOIBAR** Azken zapatuko feria Debemeneke eta Udalak antolatuta. 09:00etan hasita, baserriko eta Artalde Artisan Taldearen produktuen salmenta. 11:00etan, Lagun Taldeak pintxoak prestatuko ditu Elgoibarko baserrietako eta harategietako produktuekin.
- **MENDARO** Aire zabaleko margo lehiaketa Goñati frontoian, 09:00etan.

- **ERMUA** Gazteentzako surf txangoa 2010 eta 2014 artean jaiotakoentzat. Barik txartela eramatea gomendatzen da. Tren geltokian, 09:50ean.
- **DEBA** Euskal Jaia Egun osoko egitaraua izango du ospakizunak. Egitarau osoa, 25. orrialdean.
- **ELGOIBAR** Isiltasunaren eskola topaketa Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 10:00etan.
- **DEBA** Bisita gidatua: 'Debatik Zumaia' itsasontziz' Beharrezkoak: jantzi egokiak, eguraldiaren

MUNDUKO IPUINEN EGUNA



SORALUZE Munduko Ipuinen Eguna

LARUNBATA 26: Txotxongilo tailerra, liburutegi txokoa eta ipuin kontaketa izango dira, euskaraz zein ingelesez, gazte, heldu zein umeentzat. 11:00etatik 14:00etara, Liburutegi Txokoa, Plaza Barrixan –euria egiten badu, eliz atarian–. 11:00etan, *Bokoiaren munduan barna* txotxongilo tailerra, gaztelekuan. Euskaraz –xuxurlariak, gaztelekuz–. 13:00etan, *Kamishibai ipuinak*, Japoniako ipuinak, eliz atarian. Euskaraz. 18:00etan, *Old tales from Wales*, Galesko kondaira zaharrak, eliz atarian. Ingeleseztan eta euskaraz. 19:30ean, *Ongi etorri!* helduentzako ipuin musikatua, kaperan. Euskaraz.

arabera. Prezioa: 16 euro –12 urtetik beherakoentzat, 10 euro–. Erreserbak egiteko: geoparkea.eus. Irteera puntua: Anes Arrinda pasealekuan –pantalana–, 17:30ean.

mtgkulturelkarkea estekan –lekua baldin badago, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera–. Kultur Elkarteak liburutegian, 10:00etan.

- **MALLABIA** 'Gereako ur-jauziak' familientzako mendi-irteera Mallabiko mendizaleek antolatuta. Irteera, Trabakua Goikoan, 10:00etan.
- **ELGOIBAR** Udal Musika Bandaren kontzertua 1. *En marcha al cine* (Larry Clark). 2. *La leyenda del beso* (Reveriano Soutullo y Juanvert). 3. *Abracadabra* (Frank Ticheli). 4. *Zorba el*

IGANDEA 27

- **ELGOIBAR** Diana, Elgoibarko dultzaineroekin Kaele zehar, 10:00etan.
- **DEBA** Magic Txapelketa Ligako 8. jardunaldia. Izen-ematea: 7 euroan, labur.eus/

OSASUN GIDA.....

ainhoa
fisioterapia
Jauregi plaza, 6 beheko - Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitatea
RPS 177/12
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com

leku eder
hortz klinikak
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Erparantzia, 5 - Elgoibar
943 530 053

NATUR HOUSE
Aina Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPSOMATUA
RPS 203/16
Terribio Etxebarria, 22
Elgoibar
677 551 850

griego (Mikis Theodorakis).
5. *Soñad el mar* (Manuel morales). 6. *Do-re-mi* (Richard Rodgers). Zuzendaria: Gorka Mujika Urain. Herriko Antzokian, 12:30ean.

ASTELEHENA 28

- **SORALUZE Pentsio publiko duinen aldeko elkarretaratzea** Soraluzeko Pentsiodunen Mugimenduak antolatuta. Plaza Barrixan, 11:45ean.
- **SORALUZE Erakusketa: Baroja Colleten 'Osatu gabea'** Eskultore eta grabatzailearen lanak erakusgai egongo dira Oreka Art galerian, 19:00etan.
- **ITZIAR Peria antolatzeko bilera** Burugorri gaineko lehen solairuan, 20:00etan.

ASTEARTEA 29

- **ELGOIBAR Zaintzari eta etxez etxeko lanei buruzko aholkularitza zerbitzua** Merlin Medinarekin. Bakarkako saioak. Doan. Beharrezkoa da aurretik hitzordua hartzea. 688 64 09 83. Lilan, Elgoibarko Emakumeen Etxean, 16:00etatik 19:00etara.

ASTEAZKENA 30

- **SORALUZE Hitzaldia: 'Baroja Collet: grabatuaren teknika'** JendartEKIN proiektuaren baitan antolatutako hitzaldia. Gaztelaniaz. Oreka Art galerian, 10:00etan.



ELGOIBAR Aiastiako jaiak

LARUNBATA 26: 12:30ean, kanpai jotzea, jaiei hasiera emateko. 13:00etan, umeentzako puzgarriak. 14:30ean, bazkaria. Bazkalondoren, puzgarriak egongo dira, 17:00ak arte. 17:30 aldera, bola-txapelketa. Lau sari egongo dira, eta beste sari bat, auzoko lehenarentzat. Lehen sariak txapela izango du. 20:00etan, Haritz EDTren emanaldia, Borja Uzuriagaren oroimenez. 21:30ean, afaria. 00:00etan, Bide Batez taldearen erromeria. Ondoren, DJ Tita. Autobusa, Txarridunako biribilgunean, 17:00etatik 02:00etara.

IGANDEA 27: 10:30ean, II. Aiastia (San Migel) Traila. Jarraian, sari banaketa eta salda eta txorizoa, Batzola eta Andonegi trikitilariak alaituta.

ASTEARTEA 29: 11:00etan, meza. Jarraian, Baltzola eta Andonegi trikitilariak. 12:00etan, pilota partida. 14:00etan, bazkaria.

- **SORALUZE Haurreskolako izen-ematea: azaroa** 2025 eta 2026. urteetan jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreek eska dezakete plaza Haurreskolan, urriaren 10era bitarte; epe horretan izena emandako haurrak azaroaren 2an hasiko dira. Haurreskolan, 00:00etan.

OSTEGUNA 1

- **SORALUZE Nagusien Eguna** Nagusien Kontseiluak antolatuta.

10:30ean, pertsona nagusientzako ariketa fisikoa, Sapan. 11:30ean, pertsona nagusientzako gidaren aurkezpena, Sapan. Amaitzeko, Plaentxia Kantuan-ekin abestu eta mokadutxo bat hartu.

- **ELGOIBAR Altzariak zaharberritzeko eta birziklatzeko ikastaroa** Asteartean eta ostegunetan, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Izen-ematea: 615 76 43 37 (Nieves). Antolatzailea: Eskuz.

OSTIRALA 2

- **ERMUA Musika: 'Kamento'** Sarrera: 12 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.
- **MENDARO Kontzertua: 'Hilario Rodero Quintet'** Sarrerak salgai Uztargi tabernan, 15 euroan. San Agustin kulturgunean, 21:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

25 BARIKUA	Soto / L. Apraiz / M. Alves
26 ZAPATUA	Garitaonandia / L. Apraiz / I. Lecumberri / *A. M. Baz
27 DOMEKA	Garitaonandia / L. Apraiz / I. Lecumberri
28 ASTELEHENA	Yudego / H. Burgoa / A. Alcalá
29 MARTITZENA	Fernandez / H. Burgoa / I. Ugarte
30 EGUAZTENA	Arriola / H. Burgoa / A.M. Baz
1 EGUENA	Oruesagasti / H. Burgoa / M. Alves
2 BARIKUA	Barrenetxea / A. Zalduegi / I. Lecumberri

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:

Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK

Egunez: 09:00-22:00
Gauetz: 22:00-09:00
Elbarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK

DEBA A. ZALDUEGI:	Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA:	Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA:	Santa Ana, 1- 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA:	Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA:	Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO:	San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ:	Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES:	Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA:	Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI:	Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE:	Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI:	Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ:	Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:	Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ:	Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO:	Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI:	Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR

HERRIKO ANTZOKIA
Iñaki Agirre zinemaldia
'Un poeta'
Ostirala, 25: 19:00
'Yo no moriré de amor'
Larrunbata, 26: 19:00, 22:15
Igandea, 27: 19:00
Astelehena, 28: 21:00

ERMUA

ERMUA ANTZOKIA
'El final de Oak Street'
Larunbata, 26: 19:30
Igandea, 27: 19:30
'El ser querido'
Larunbata, 26: 22:00
Igandea, 27: 19:30
'Rufus, igeri egiten ez zekien sugea'
Igandea, 27: 17:00

DEBA

KULTUR ELKARTEA
'Hamnet'
Igandea, 27: 19:00

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA
'Tiempo de victoria'
Larunbata, 26: 17:00, 19:45, 22:30.
Igandea, 27: 17:00, 20:00.
Astelehena, 28: 19:30.
'La bola negra'
Larunbata, 26: 17:00, 19:15, 22:30.
Igandea, 27: 16:30, 20:00.
Astelehena, 28: 19:30.
'Prácticamente magia 2'
Larunbata, 26: 19:45, 22:30.
Igandea, 27: 20:00.
Astelehena, 28: 19:30.
'La Patrulla Canina. La Dino Película'
Larunbata, 26: 17:00.
Igandea, 27: 17:00.



'Un poeta' filma

Zure produktu edo zerbitzuak ezagutarazi nahi?

Ipini publizitatea Barrena astekarian edota Barrena.eus webgunean

publi@barrena.eus | 688 76 96 57

11.500 ale astero +120.000 bisita hilean

AZKEN BERBA

Administrazioa bertakotu



AMATIÑO

Diktadura garaian administrazio publikoa ez zen euskaldunok amesten genuen lanpostua. 1979etik aurrera berreskuraturako erakunde demokratikoekin batera, Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiaren idazkariordeak gazte jende euskalduna animatu zuen funtzionario izatera.

Ia mende erdi geroago, egoera erabat aldatu da, eta beldur gara gazteriak ez ote duen errazegi jotzen administrazioaren lanpostuetara. Onartzen dugu administrazioa euskaldundu beharra, nahiz horretarako funtzionario-kopurua gehitu behar izan. Baina, zein neurritan?

Datua datu, 1979. urtean 640.000 behargin ziren okupatuak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta 83.000 (%13) enplegu publikoan. 2025. urtean, oster, milioi bat langile guztira, eta 160.000 funtzionario (%16). Hau da, funtzionarioen kopurua bikoiztu arren, ehunekoetan hiru puntu baino ez da igo. Hartara, Autonomiak ez du administrazio publikoaren pisua lar gehitu, nahiz Estatuaren ardurapean zegoen egitura sakon aldatu eta euskaldundu. Baina, zein da ordaindu genezakeen topea?

BUKATZEKO

Areitioko Kirol Hiria, SD Eibarren harribitxia

Klubaren egitura osoa 11 hektareako espazio bakar batean zentralizatu dute

Ainara Argoitia MALLABIA

Zementu bota berrian euliaren hanka-marka ere gelditu egiten da, eta horixe gertatu zaio SD Eibarri, joan den barikuan Areitioko Kirol Hiriaren inaugurazioan izan zen anekdotarekin. Klubak kamiseta ofiziala oparitu zion Imanol Pradales Jaur-laritzako lehendakariari, baina Pradales behar zuen lekuan Padrales jarrita. Hutsegiteak dira, gertatzen direnak gutxien behar denean eta dena zainduen dagoenean. Oker txikiak, irribarre bihurriak ateratzen dituztenak eta egun historikoak umoretik betikotzeko balio dezaketanak.

Nolanahi ere, anekdotarekin edo gabe, SD Eibarren historian mugarrria izan zen barikukoa, eta hala azpimarratu zuen klubeko presidente Amaia Gorostizak inaugurazio-ekitaldian, proiektuan sinetsi duten guztiak gogoan hartuta: "Hau ez da ez zuzendaritza baten ez legealdi bateko kontua; ezta agintaldi batekoen proiektua ere. Hau klubaren historian etxe propio baten beharrean sinetsi duten pertsona guztiena da".

Agintariak, babesleak eta klubeko masa sozialaren nahiz komunikabideetako ordezkariak parte hartu zuten ekitaldian; tartean, Jaur-laritzako lehendakariak, Ibone Bengoetxea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak, Eider Mendoza Gipuzkoako ahal-dun nagusiak, Mallabiko eta Eibarko alkateak, Igor Agirre eta Jon Iraola, Javier Tebas Liga Profesiona-



Areitioko Kirol Hiriaren aireko ikuspegia. SD EIBAR



Imanol Pradales lehendakaria, SD Eibarren Padrales kamiseta jasotzen, Amaia Gorostiza presidentearen eskutik. ANDER GOMEZ

leko presidentearak, Rafael Louzan Espainiako Futbol Federazioako presidentearak eta Beatriz Alvarez F Ligako presidentearak. Klubaren egitura osoa espazio bakar batean zentralizatu du SD Eibarrek Areitio, eta instalazioetan barrena bisita gidatua egin zuten barikuan,

Amaia Gorostizak gidatuta. Guztira, 11 hektareako lur azalera hartzen du Areitio Kirol Hiriak, eta bost futbol zelai ditu, 1.620 lagunentzako harmaila duen eraikin baten inguruan. 30 milioi euroko inbertsioa egin du klubak bertan, eta, diru iturri propioez gain, La Liga Im-

pulso erakundearen laguntza izan du finantzaketan.

"Egun historikoa"

Historikoa izan zen barikuan bataren eta bestearen ahotan gehien errepikatu zen berba. Presidenteak berak eman zituen arrazoiak; atzera begirakoa osatu zuen. "Eibarrek Otaola Erdikoan jokatu zuen lehen partida, 1914an. Leku aldapatsua zen lursail hura, zuloz betea, eta, hain zen prekariora, ezen Guardia Zibilak tiro-probak egiteko erabiltzen zuen. Hura erabiltzeari laga genionean, partidua inguruko herrietan jokatzeari ekin genion, ezinbestean. 1940an hala jarraitzen genuen. Ipuruia, gaur gure etxetzat daukaguna ere, ez da hala. Anitua familiak erosi zuen lursaila gerrako hondakindegia bat zenean, eta Eibarko Udalarik eman zion, zeinak gaur erabiltzen lagatzen digun". Baina klub baten jarduna ez da partiduetara mugatzen, eta non entrenatu ere ez du erraza izan SD Eibarrek urte askoan. Harrobiko taldeak 40 urte baino gehiagoan entrenatu ziren Txantxa Zelain, harik eta 1997an Unbe zabaldu zuten arte, eta lehen taldea bera Atxabalpen entrenatzen aritu zen 2014tik 2025era, Arrasateko Udalak lekua lagata.

Posible ikusten dena, baina, beti dago gertuago, eta horixe da SD Eibarrek egin duena, bere argian sinetsi. Horren harira, Amaia Gorostiza presidentearen agintaldian egindako lana goretsi zuen lehendakariak; azpimarra jarri zuen klubaren "kudeaketaren bikaintasunean, epe luzerako ikuspegian eta autoexijentzian", eta "umiltasunarekin, zintotasunarekin, ondo egindako lanarekin eta kirolaren berezko balioekin" lotu zuen kluba.


Barrena
BATZEN GAITUENA

ZOZKETA

BARRETEGIA ikusteko Bi sarrera bikoitz

barrena.eus/zozketak

Irabazleak:



Jose Ramon
Cabrera
Elgoibar



Andoitz
Agirregomez
Elgoibar

BARRETEGIA Bakarriketa saioa

Eguna: Irailak 25, ostirala
Ordua: 20:00
Lekua: Debako Kultur Elkarte

Babeslea:

